


ANTONIO ZAVALA, S. I.

IRU BERTSOLARI

AGUSTIN ZAKARRA (1816-1886)

PATXI BAKALLO (1832-1898?)

PEDRO SANTA CRUZ (1839-1905)



AUSPOA LIBRUTEGIA

IRU BERTSOLARI

AGUSTIN ZAKARRA (1816-1886)

PATXI BAKALLO (1832-1898?)

PEDRO SANTA CRUZ (1839-1905)

AUSPOA LIBURUTEGIA

66

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

IRU BERTSOLARI

AGUSTIN ZAKARRA (1816-1886)

PATXI BAKALLO (1832-1898?)

PEDRO SANTA CRUZ (1839-1905)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1967

Depósito Legal S. S. 527/67

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1967**

A R K I B I D E A

Itzaurrea 9

AGUSTIN ZAKARRA (1816-1886)

Itz bi	13
Agustin Zakarra	16
Kartzelan	17
Eztaietako txala	18
“Sasoia daukan eta”	21
Izkurbaneko leiuan	22
Andreari	23
Txuringai'ko errota	27
Medikuari	31
Teresari	33
“Gizon tabernakoiak”	34
“Mutil ederra aizela”	35
<i>Zakarra ta Baria</i>	37
Zakarraren semea	44
Azkena	47

PATXI BAKALLO (1832-1898)

Patxi Bakallo bertsolaria	51
“Leiotik leiora”	51
“Kriaturak izandu”	59
“Goizian jeiki eta”	60
“Iñork badakizute”	62
“Atzo Santiyago zan”	64
Bere buruari	65
(1881) Patxi Bakallo eta bere semea ...	67
Bertsuak Patxi aitak emanak	73
Desgrazia bat suzeditu zat”	79

PEDRO SANTA CRUZ (1839-1905)

Pedro Santa Cruz bertsolaria	87
Erbiaren bertsoak	95
Bertso Berriak Pedro Santa Cruz'ek jarriak (San Pedroren bizitza)	101
Bertso Berriak Pedro Santa Cruz'ek Andoingo dantzariari jarriak	108
(1887) Pelota partiduarenak	114
Mutilzarren bertsoak	117
(1891) Etxe-aldaketa edo bertso batzuen ondorena	123
Emaniko Eriñazuko Misio Santuaren oroi-pengarriak	127
Despedira	134

ITZAUURREA

Liburu onek, iru bertsolariren bertsoak ditu: Agustin Zakarra (1816-1886), Patxi Bakallo (1832-1898?), eta Pedro Santa Cruz (1839-1905).

Irurak, beraz, joan dan mendekoak dira. Orregatik, liburu onek ondo aditzera eman go du, orain iya eun urteko bertsolaritzu zer zan.

Zer esanik ez dago, bertso geiago aotik aora kantatu ta paperetan ere jarriko zutela iru bertsolari auek. Emen dijoaz betiko galtzetik salbatu ditugunak, jaso al izan ditugunak alegia.

Bertsolari auetako bakoitzak, etzuan berak bakarrik liburua osatzen; iruren artean bete dute.

Doñuak, orain arte bezela, Ambrosio Za-

tarain jaunak pasa ditu magnetofonotik paperera.

Zoritxarrez, ez degu baten erretratua baik eskuratu, Patxi Bakallorena; onen biloba dan Juan Roteta Belaunzaran jaunari zor diogu. Ontatik egin du Valverde jaunak liburu-azalean jarri dan dibujua.

Besterik gabe, milla esker liburu au egi-ten lagundu digutenai.

AGUSTIN ZAKARRA
(1816-1886)

ITZ BI

Agustin Zakarraren bertso ta gertaeren berri, Mikela Elicegui, Pello Errotaren alabari, zor diogu geien-bat. Urteak —larogei ta amazapi— ez diote oroimena batere moteldu, ta Euskalerra zaarra zer zan jakin nai duanak, berarengana joatea dauka. Pello Errotaren liburuetarako bezela, beste onetarako ere magnetofonoz bildu dira Mikelak esanak, auek gero, al dan gutxien ikuturik, paperera aldatzeko. Orregatik, egiazko egilletzat Mikela jo genezake; ni, berriz, aren sekretariotza egin dedana. Beraz, besterik gaztiazten ez bada, Mikela da Zakarraren bertso ta gertaerak ematen dituana.

Bañan beste laguntzalle prestu bat ere izandu degu: Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna, orain Plaentzi'n, ta gerra aurrean Asteasu'n bizi zana, ta emengo bertso zarrak biltzen gogotik saiatu izandakoa.

Jaun oni artuak zein diran, oarretan adie-

razten degu. Ta ori bera da, bestek eman digutenakin egin deguna.

* * *

Zakarraren apelliduaz etzan Asteasu guzian iñortxo ere oroitzen. Ez-ta ere, noski, noiz jaio ta noiz il zanik. Au dana argitzen asteko, iru “eldu-toki” bagenituan, ordea: Zakarrak Agustin izena zuala; semeak, Jose Domingo; eta etxeak, berriz, Esnarritza.

Ala, Asteasu'ko eliz-liburuak artuta, asi giñan garaitsu artako Jose Domingo guzien bataio-agiriak irakurtzen, aita Agustin zuan Jose Domingo bat topatu arte. Noizbait bear-ta, arkitu genduan olako bat: aitak Jose Agustin zuan izena. Urrena asi giñan Jose Agustin orren bataio-agiriaren billa; ta, au arkitu ondoren, eriotz-agiriaren billa. Ta onek, etxearen izena ere badakar: Esnarritzaga. Beraz, Esnarritza, oi dan bezela, erriaren laburpena da.

Orra, beraz, nola, iru “eldu-toki” oieri esker, bear genduan argitasun guziaren jabe egin giñan.

Ona orain emen, asieran, Zakarraren bataio-agiria:

“El dia onze de abril de mil ochocientos y dies y seis nacio á las doze de la noche Jose Agustin hijo legitimo de Luis de Elo-

la Olaso y de Teresa Antonia de Beobide naturales de esta villa: abuelos paternos Juan Bautista de Elola Olaso natl. de Larraul y Maria Magdalena de Sorarrain de esta: maternos Juan Bautista de Beobide, y M.^a Magdalena de Zatarain natl. de esta: y el dia siguiente fue bautizado por Dn. Juan Ignacio de Larrondobuno comisionado por mi el infraescrito Rector de esta Parroquial de Asteasu: siendo padrinos Francisco Antonio de Garmendia como procurador de Jose de Elola Olaso, a quien (se advierte) que no se dio aviso de esta disposicion, y Maria Agustina de Urquidizar, a quienes se advirtió el parentesco espiritual que contrageron, y la obligación de enseñarle la doctrina cristiana. Y p.^a que conste firmamos

Dn. Juan Bapta. de Aguirre

Dn. Juan Ign.^o de Larrondobuno

Beraz, berak bataiatu ez bazuan ere, Aguirre euskal idazle aundia zan erretore Asteasu'n, Zakarra jaio zanean.

Bataio-agirian Zakarraren deitura Elola-Olaso da; bañan eriotz-agerian eta semearen bataio-agerian, Elola soil-soillik. Euskal deitura asko, era ontan gelditu izan dira puska galduta.

Bañan, besterik gabe, leku utzi zaiegun Mikelaren esanai.

AGUSTIN ZAKARRA

Agustin Zakarra, Astiasu'ko bertsolari zarbat izandu zan, Esnarritza deritzaion baserrikoa. Iru Esnarritza dira, bañan ez dakit oraintxen zeñetan izango zan. Esnarritza Astiasu'ko erreka-ballaran dago, Erniyo alde-ra. Orain kamioa ere bada Esnarritza'raño.

Ezagutzen nuan nik ura. Itxusia zan, izugarri itxusia! Betilleak onenbeste luzeak; eta muturra, beltza. Ta muturrean pipa artuta ibiltzen zan beti.

Bein Bakarrik begiratu omen zion ispilluari, ta geiago begiratzeko gogorik gabe geratu omen zan. Ala esaten zuten.

Bozik etzuan. Aren gazte denboran ere gerra izan omen zan, ta orduan presionero eramane omen zuten, da ango kartzelatik katarrua ekarri omen zuan, da bozik ez. Berak ere esaten du bertso batean:

“oaindik kendu-be daukat
orduho orrua”.

Bañan oso bertsolari ederra zan. Izugarri etorri onekoa. Gure aitak ala esaten zuan beti, ta pozak egoten zan Zakarra arrapatu ta berarekin kantatzeko.

KARTZELAN

Lengo gerrate zarrean (1), Astiasu'n lau gizon presionero artu omen zituzten: Zakarra ori, Txaparroren aita, ta beste bi.

Ta an eduki omen zituzten Donostia'n kartzelan, miseriaz iltzen, bañan ez iltzen orregatik. Libre atera azkenean.

Zakarra orrek esaten zuan, arratoiak irte-ten bazitzaizkan, arapatu ta gustora jaten zituztela; ta lau lagun oiek amaika arrua pisatu zirala. Iruna arrua zirala ere, amabi arrua bear zuten, bañan ez, amaika. (2)

Pasadizo artako bertsoak ere kantatzen zitu-
an arek gero. Aietako bat onela zan:

Orduantxen ez nintzan
entero arrua,
oaindik kendu-be daukat
orduko orrua,
zorriak jan zidaten
lepoko larrua,
lau lagun pisatu giñan
amaika arrua.

(1) Karliten lenengo gerratean, seguru asko.

(2) Arrua, amabi t'erdi kilo da.

EZTAIETAKO TXALA

Zakarrak bazuan bere kideko lagun aundi bat, Pedro Mari, Elkaita baserrikoa. Baserri ori aundia ta zarra da, antziñakoa.

Pedro Mari ori ezkontzera zijoan, ta pregoi-aparian, pregoi-eguneko gaubean egiten zana alegia, lagunak aparitara joan-da izan omen zituzten baba beltzak eta urdai-puska bana prejitua, pitxarreko botilla ardoarekin, lau lagunen artean. Etzegoan gaur aña litxarrerri!

Orduko eztaiak etziran gaurkoak bezela. Zagi ardoa aita-pontekoak ekarri bear zuan, ta txala bat gizentzen zan, eztaietako txala. Gero txekor ura il, ta an naiko okela!

Txekorra jan bitartean, bertan gelditzen ziran danak, mandioko belar gañean lo egin-da. Aragia egosita, aragia prejituta, aragia erreta... Dana aragizkoa. Orain legatza ta egaztia edo ola usatzen da; orduan ez; orduan, txekor-aragia ta ardoa.

Lurrezko platera aundi bat jartzen zuten maiaren erdi-erdian, eta jan bear zutenak andik puskak arrapatu; atzaparrarekin ere bai.

Pedro Mari orrek ere eztaietako txala bazeukan, eta, laguna zuan ezkerro, onela esan zion Zakarrari, elizatik etxerakoan, igande batean:

—Aizak, Agustin: an bazeukat txekorra nik ere, ta goazemak eta ikusi zak.

Joan ziran eta ikusi omen zuan: adarrak galantak, illea luzea, okela gutxi...

Ta begira-begira jarrita bertso auek kantatu zizkan:

Pedro Marik badauka
eztaitako txala,
iru urte badira
ori jaio zala;
besterik ez daduka
ezurra ta azala,
Aita San Antoniyok
bedeinka dezala.

Jaunak, ikaratzen nau
txekor onen plantak,
onen gañian jarri
biar ditut kantak;

beste askok bezela
baditu lau anakak,
illia luzia ta
adarrak galantak.

Kontuan jartzen zaitut
zu, Pedro Mariya,
pasatu ez dakizun
emen komeriya;
eztaietara artzen bâzu
kuadrilla aundiya,
laister jango dizute
onen aragiya. (1)

(1) Mikela, Pello Errotaren alabari, bi aldiz kopiatu nizkan bertso auk: batean, emen dauden bezelaxe; bestean, berriz, bi aldaketakin: 2/5: beste askoren gisa; 3/5: bodetâ ekartzen bâzu.

Jose Ant. Loinaz-Otaño apaiz jaunak, gerra aurretik, Astiasun, beste onela jaso zituan bertso auk: 1/1: Pedro Marik daduka; 1/4: ura; 1/5: beste gauzarik ez du; 1/8: gizendu dezala; 2/2: txekorra-
ren plantak; 2/3: arren gañian jarri; 3/2: nik, Pedro Mariya; 3/4: gero komeriya; 3/5: eztaira artzen badezu; 3/8: aren aragiya. (Agian Mikelari berari jaso zizkan, bein baño geiagotan bertsorik kopiatu baitzion.)

“SASOIA DAUKAN ETA”

Sasoia daukan eta
salta arin-arin,
egonda gauza oberik
etzion berdin;
kolore txurituak,
begituak urdin,
neska mutil-zaliak
ortan ezagun din. (1)

(1) Bertso au, Tolosa-ko Fakundo Adurriaga “Besamotza”-ren eskuz idatzitako kuadernotik artua det.

Mikelak etzekian buruz bertsoa; bañan, nik irakurritakoan, berealaxe gogoratu zuan, eta onela esan zuan:

—Bai, bertso ori ere Zakarrak kantatua izango zan. Bai, noski, Zizurkilko edo eztakit nungo neskatxari kantatu omen zion.

IZKURBANeko LEIUAN

Bein batean bertsoan ari ziran Zakarra ta gure aita. Gure aita Kontzejuko balkoitik eta Zakarra Izkurbaneko leiotik, da jende asko plazan.

Gu oso umeak giñan orduan, bañan umeak ere ikusitakoa gogoan eukitzen.

Zakarrak neskatxa bat zuan aldamenean, da, alako batean, onela kantatu zuan:

.....
.....
.....
.....

Pello Errota Kontzejuan da
ni Izkurbaneko leiuan,
neska polit bat ementxe daukat
musu bat eman deiuan.

Ta plast!!!, musu eman zion, da sekulako parrak jendeak. Olakoxea zan Zakarra.

ANDREARI

Zakarra ta bere andrea, ezkondu ziran egunean (1), Tolosa'ra joan omen ziran. Peri edo merkatu-eguna zan, da jende guzia asi omen zan:

—Ara Zakarraren andrea! Ara Zakarraren andrea!

Ta andreak galdetu omen zion:

—Agustin: zuri esaten al dizute Zakarra?

Ta Zakarrak:

—Zuri, zuri; itxusia zera ta zuri esaten dizute; neri ez!

Ta ziaro sinistu andreak. Malezi aundi gabeko atsoa zan.

* * *

(1) Zakarraren ezkontzaren berri ez degu arkitu Asteasu'ko eliz-liburuetan. Andrea kanpotarra izanik, onen jaioterrian ezkonduko ziran. Bañan semearen bataio-agiriak ematen dizkigu amaren zenbait argibide:

“Maria Joaquina de Odriozola natural de Urrestilla... (Abuelos) Maternos José de Odriozola y Maria de Unanue, ambos difuntos, naturales que fueron de Azpeitia”.

Bein batean, tentatuko zuan bateonbatek
eta onela kantatu zuan:

Oi ta amairu urtetan
nitzaden ezkondu,
askok esaten zidan
nuela berandu;
ojala beiñ ere
pentsatu ez bagendu,
ederki jaten du
igual eraten du,
ezer ezin kendu,
nik ura biarrian
ark ni konpondu. (2)

* * *

Andria zarra det bañan
bai erritariya,
etxera juan eta
palta apariya;
atsegin nai ta ere
ostikolariya,
txanponeko eltzia
ausi zidan iya,
nik daukân plakiya,
jateko premiya,
gañera inbiriya,
au da komeriya,

(2) Bertso onek bederatzi puntukoa bear zukeala
ta puskatxo bat falta duala ematen du.

alakuan senarra
da errukarriya.

Esaten det jendia
konturatu dedin:
orain ezkontutzen da
bost buru-arin;
ume bat besterikan
ez diot eragin, (3)

.....

.....

egiñalak egin,
biar diyot ekin,
libre daukat berdin,
nork artuko du min?
sasoi dedan artian
diberti nadin. (4)

* * *

(3) Zakarrak seme bakarra izan zuan, eta alabarik batere ez.

(4) Iru bertso auek, seguru asko, alkarren segiran botiak edo jarriak izango ziran. Bañan bi tokitatik jaso ditugu: lendabizikoa, Mikelari; ta beste biak J. Ant. Loinaz-Otaño jaunaren kuadernotik. Onek, Zakarrarenak bezela jasoak ditu, eta Mikelak ere, irakurri nizkionean, onela esan zuan:

—Zakarrarenak dira oiek. Txanpon-kontu ori (1) ta oiek ikasi nituan nik. Alako ateraldiak zituana zan, bai, ura. Bañan orain guzi-guziak argi-argi ez nituzke esango. Aztu-ordua ere ez al degu?

(1) “Txanponeko eltzia — ausi zidan iya” alegia.

Mikelaren semeak (Bautista Cortajarena, "Ondartza") ere bazekian bertso auetako bat. Bañan motxago, lau puntukoa, Iturta-bitarte'ko Juan Pello Tapia zanari entzun da ikasi omen zion. Onela esan zuan:

Andria artu nuen
erritalariya,
maitatu nai-ta ere
ostikolariya;
etxera juan eta
palta apariya,
txanponeko eltzia
ausi zidan iya.

Ta, onen segiran, beste bertso au eman zidan, Juan Pello Tapia zanari ikasia au ere:

Atzo juan nitzaden
berandu-antzian,
aukera aundirikan
etzegon etxian;
aparitan asita
bi baba eltzian,
aitatikan erdiya
andriak jan zian.

TXURINGAI'KO ERROTA

Esnarritza baño leenago, Astiasu alderago, kamioan gora joan da ezkerretara, Txuringai'ko errota dago. Baratza Astiasu'ko partean dago, ta etxea Larraul'koan, bien artetik erreka pasatzen dalako.

Nik ezagutzen nuan Joakin Txuringai ura. Aitona zaar bat zan.

Aren alaba jarri zan etxean, errotan, bañan alargundu zan, bi alabakin geldituta. Ta anaia izan Amerikan, da anaiak ara otsegin zion.

Aita gureak pikatzen zion errota. Ura nik gogoan det. Eta, emendik joaterakoan, auntza aita gureari erregalo utzita joan ziran ama-alaba aiek.

Anaiagana joanda, nunbait mendian zeukan lana arek, eta bei jeixten jarri ziran; da ango gizon guziak baño geiago irabazten omen zuten.

Gure aita joan zanean, an ikusi zituan,
da berebiziko diruak eginda omen zeuden.

Ba, Joakin Txuringai ori errotaria zan,
da Zakarra bertsolaria, ta betikoa: Gure
aita Azpeiti'ra eraman zutenean ere, beste
biak (1) nekazariak ziran, da errotaria ba-
karra izanik, errex txautuko zutela uste zu-
ten, bañan gure aitek atera zuan premiyoa:
Eramaten bazuten jenero ona, errotariak
eoko zuala ona; jenero ona eramateko, eta
munduan dan iriñik onena aterako zuala...

Ara, ba, Zakarra nekazariak Joakin Txu-
ringai errotariari, nolako bertsoak kantatu
zizkan bein batean:

1/ Txuringai'ko errota,
errota lasaia,
datorren aliari
alegiña saia;
amarretatik zazpi
egiten du zaia,
alare utsa litzake
ez balu usaia.

(1) Jose Bernardo Otaño ta Udarregi. Ikusi "Az-
peitiko Premiyoaren Bertsoak", Auspoa 27.

2/ Joakin Txuringai'koak
kontu txarrak dauzka,
arriyak egiten diyo
alia bi puska;
ordu t'erdi gutxinaz
taluari ozka,
baten erdiya jatia
etzait gutxi kosta.

3/ Garizuman bezela
nabil ni barauan,
goserik ezin kendu
ez egun ta ez gauan;
egiñalak eginda're
ezin pasa auan,
sekulako bildurtu naiz
itoko ote nauan.

4/ Olako errotariak
munduan nor dia?
irin usaiduna dauka
neretzat gordia;
por cierto jan ezinda
autikan lerdia,
berriz e eukiko det
kolore berdia.

5/ Orrenbeste esatia
zitzaizun komeni,
Agustiñek bost bertso
dizkizu ipiñi;
iñor autan artu gabe
bakarrik Joakiñi,
gustua eman diyezu
amaika oikiñi. (2)

(2) Bertsoak jarri ditugu Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak gerra aurretik Asteasu'n bildu zituan bezela. Bañan balitzake onek Mikelari bera-ri jasoak izatea. Ontaz Mikelari galdetu ta onela erantzun zuan: "Arek neregandik jakiten zituan. Meza nagusi ondoan eramaten giñun salda artzera, ta orduan eskribitzen zituan, gu saldarekin engañatuta". Bañan Mikelak —iya 35 urte joan dira— ez daki iru bertso besterik: 1, 2 ta 3-garrena. Orre-gatik jarri degu Loinaz-Otaño jaunarena, guk Mike-lari jaso diogun bañon osoagoa ta zaarragoa da-lako.

Mikelak, dakizkin iru bertso oiek, aldaketa aue-kin kantatzen ditu: 1/3-6: dakarren aliari — egi-ñala saia; amarretatik zortzi — badaduka zaia; 3/2: gabiltza barauan; 3/5-6: egiñalak ein ditut — txi-kitutzen auan.

MEDIKUARI

Garai artan, Don Julian Irigoyen zan erriko medikua. Urte asko egin zuan. Oso mediku ona ta jatorra zan. Arek esaten zuana, or nunbait ibilliko zan. Petxua estudiatu zuala geiena, esaten zuan.

Iru seme ta bi alaba izan zituan. Iru semeak mediku estudiatu zuten. Oraindik ere Ernani'n edo or nunbait ditu. Karrera emateagatik, Tolosa'ra eramán zituan, eta, or asko kostatzen zitzaizkala-ta, len Astiasu'n erosi zuan etxea saldu, ta Tolosa'ra joan zan bera ere bizitzera.

Sosik gabeko andrea artu ta semeak gizon egin zituan arek Astiasu'ko medikutzarekin. Etzan motela!

Aberea ere bazuan, eta, tiki-taka tiki-taka, aren gañean joaten zan bear zuan tokira.

Asteasu'n azkeneko jaiotza, orain irurogei ta amairu urterekin Naparroan dagoan nere alaba zarrarena izan zuan. Otsaillaren zortzian konpritu zaizka. Gazteak gaude!

Egun batean, bertsoa botatzeko ta botatzeko asi omen zitzaion Zakarrari.

Ta Zakarrak esaten zion:

—Bai, nik esana libre det eta ez diot botako.

Ta Don Julianek:

—Neri ze inporta zaidak ba?

Txintxatu ta txintxatu egiten zuan, da azkenean Zakarrak au bota zion:

Beok baño gaiztogorik
munduan ote da?
nolakuak diraden
nua esatera:
botikarako egin
aguro papera,
alimentuak kendu,
odolak atera,
lenbailen bialtzeko
satorren tartera.

Ta medikua zearo asarretu zitzaion. Bañan gure aitak ala esan izan omen zion:

—Ez du Zakarrak kulpik, e? Arek asterako esan dio. Berorrek ere badaki ori zer dan. Aita Santuari ere orrek ez lioke barkatuko-ta... (1)

(1) Bertso ta gertaera guzia, Mikelak kontatuak dira. Jose Antonio Loinaz-Otañorenean ere bertso au badago, bañan aldaketa auekin: 3: zein nolakuak diran; 5-6: botikara aguro — bialdu papera.

TERESARI

Neskazar bat bazan, Teresa; santa-itxuran ibilli bai, bañan artoa arek ostu Zakarrari, ta onek gero bertsoa kantatu. Uruman, soro bat da. Bertso onek beste puskarren bat ere eukiko zuan noski, bañan nik gogoan ez orain. Zakarrak olako bertso asko zuan!

.....
.....
.....
.....

demonion bat izango aiz i
santa onaren moldian,
Uruman'etik neri artua,
Teresa, ik ostu al dian?

“GIZON TABERNAKOIAK”

Gizon tabernakoiak
beti dizu lan au:
jai-arratsak tabernan
bostetatik lau;
ez naiz erretirutzen
ez egun ta ez gau,
modu ortan gabiltza
zurrut eta mamau,
sakelak badirau,
ez danian barau,
okerrena nerau,
badet ezaguer'au,
andriak mudatzeko
enkargatzen nau. (1)

(1) Bertso au, emen jarri degun bezela, Astigarraga'ko Txomin San Sebastian zanari jaso da. Patxi Bakallorena zala esaten zuan arek. Bañan As-teasu'n ere oso ezaguna da, ta, ao batez, Zakarrarena dala diote danak. Emen ere, ustez beintzat, kopiatu nuan, bañan ez dakit zer egin nion gerroztik.

Nik irakurritakoan, onela esan zuan Mikelak ere: “Nik ikasi nuan bertso ori: Andreak mudatzeko — enkargatzen nau”. Ori bai, atzeneko ori gogoan daukat. Zakarrarena, bertso ori ere. Ain txokante aren bertsoak jaso ta eukitzen zituzten! Ori ere, Zakarrarena”.

Bautista Cortajarena “Ondartza”, Mikelaren semeak: 2: badu lanteru au; 3: jai-arratsak kanpuan; 5: erretiratu ezin; 7: jan da eran da kantatu; 8: sakelak badirau; 9: zurrut eta mamanan.

“MUTIL EDERRA AIZELA”

Zakarrak, buru-aundiya zuben Pello ize-
neko bateri, isekaz:

1/ Mutil ederra aizela
ik eorrek ust'ek,
buru aundiya aizela
esan zirak bestek,
kreditu ederragua
au iretzako eztek,
burla egingo ditek
zenbait neskatx gaztek.

2/ Berdinduko nauala
gaurkuan kantetan,
ez diyat ba utziko
nik ere batetan,
buru orren azpiko
lepua neketan,
apuntatuko nitek
zenbait ataketan.

3/ Bestênak esate'ituk,
ixilik eriak,
oraindaño izan gaituk
gu adiskidiak,
zertako paratze'izkiak
olako izpidiak?
toriatutzen banauk
aituko dizkiak. (1)

(1) Mikelak bertso auen berri etzekian. Iru bertsoak, eta goiko adierazpena ere bai, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunaren kuadernotik artuak dira. Jaun onengandik bi kopia ditut, ta aldaketa xixtrin batzuk dituzte beren artean: 2/8: batean *nikek* ta bestean *likek*; 3/2: batean *eriak* ta bestean *euriak*; 3/7: batean *banauk* eta bestean *banak*.

ZAKARRA TA BARIA

Errekalde'n (1) beti *Bariak* izan dira. Izengoiti ori aurreko zarretatik dator, Jose Bernardoren aurrekoetatik. *Bare*-kasta izan da an beti.

Gure aita ta Jose Bernardo lengusu propioak ziran andrearen aldetik. Argatik nik Pedro Mari ori asko ezagutzen nuan. *Kattarro* esaten genion, burla egin bear genion guzian; oso eztarri bajoa baitzuan.

Jose Bernardoren aita, berriz, Larraulda-rra zan, Larronbide baserrikoa, bañan Errekalde'ra ezkondua. Ura ere bertsolaria zan. Zakarrak beti burla egiten zion *Bare*-kontu orrekin:

Ongi-etorri zera,
bare adar-duna,
nola tratatu dezu
nere babarruna?
soruan billatuta
il nizun laguna,
arrezkero bakarrik
zaude alarguna,

(1) Jose Bernardo ta Pedro Mari Otaño'ren jaiotetxea, Zizurkill'en.

laster botako zaitut
sasian barruna. (2)

* * *

Au ere burla egiteko kantatu zion:

Aparaju ona da
Larraulko *baria*,
lotsarikan ez duan
ardura gabia;

(2) Bertso au oso ezaguna da Euskalerrian; babilian batzuek Otañotarrena ta besteak Txirritarena bezela jotzen dute. Txirritarren liburuan (Auspoa, 18-19, 29 orri-alde) bertso au ere jartzen degu; babilian, dudan baigeunden, agian Otañotarrena izango zala esanik. Auzi au, ordea, Mikelak erabaki du bein betiko. Ainbeste argibide emanik, itxurarik gabe utzi ditu gañontzeko iritzi guziak. Ez Otañotarrena ta ez Txirritarena, beraz; Zakarrak Jose Bernardoren aita ta Pedro Mariren aitona zanari botia baizik.

Beste era bat Txirritaren liburuan arki diteke. Ona emen beste bi:

Jose Antonio Loinaz-Otaño'k, gerra aurretik Astiasu'n bildua:

Ongi etorri zerala *Bare* adarduna,
nola tratatu dezu nere babarruna?
soruan billatuta il dizut laguna,
arrezkeroztik zaude beti alarguna,
arrika botako zaitut sasiyaz barruna.

Errezil'ko Loidisaletxe baserrian:

Bidian billatu det bare adarduna,
atzo soruan il diot berari laguna,
itaia sartu eta sasian barruna,
nola tratatu dek ik nere babarruna?

gaubian neri kendu
bere lan-taria,
illunpetan ere igual
billatu biria,
galduko balitz bota
biayot karia. (3)

* * *

Ta au da burla egitea, gero! Gure aitak
ikusiko omen zuan nola kantatu zion:

Zenbat jenerok erreparorik
eztiyo izaten ezeri,
zeriarekin kabitu zaitez,
utzi besteren gauzari;

(3) Asteasu-ko Bautista Cortajarena "Ondartza",
Mikelaren semeak:

Ara gaur nola tokatu zaidan
Errekaldeko *baria*,
motel-itxuran azkarra dezu
azienda ezur-gabia;
nere babarrun ederretara
sumatu dezu biria,
berriz aitara juaten bada
nik botako'yot karia.

Bat puntu motxean ta bestea puntu luzean ba-
daude ere, nabarmen dago biak bat dirala. Bautis-
tak ez omen zion bertso au bere amari ikasi, Itur-
ta-bitarte'ko Juan Pello Tapia zanari baizik. Aurre-
ra ere sail ontan aitaturko diran Bautistak esandako
bertso guziakgatik, orixe bera esan zuan.

lengo astian jeneru ortatik
bete nituen sei ziri,
artian ere geratu ziran,
eniyon sartu guziri. (4)

Ta, kantatu bitartean, beatza ola luze-lu-
ze berari jarri omen zion. Alegia, berari
etziola sartu oraindik, bizirik zegoala ar-
tean.

* * *

Tabakua ere igual jaten du bareak, eta
tabakua emango zion da:

Besteren gauza arrapatzeko
zeren ez diran zabarrak,
jeneru oiek zaitzen dituzte
goiz eta illunabarrak;
oartu gabe jan dizkidate
neri tabako ederrak,
berriz aitara abitzen bada
nik moztuko'izkat adarrak. (5)

(4) Adierazpena, besteetan bezela, Mikelari zor
diogu; bertsoa, ordea, bere seme Bautistari. Mike-
lak bertso erdia esan zuan bakarrik:

jeneru ontatik bete nituan
atzo goizian lau ziri,
artian ere gelditu ziran,
ez nien sartu guziri.

(5) Mikelak erdizka zekian bertso au, eta bai
urrena ere. Osatu ditugu J. Ant. Loinaz-Otaño apaiz

Gizon orretzek badaduka, bai,
kantuz abilidadia,
zierto badakit izango dala
askoz ni baño obia,
jendiak ere ala diyo ta
emana dago fedia,
zakar-pilla aundiya botatzen badek
tapatuko dek *baria*. (6)

* * *

Urrengo bertso auk Mikelak etzekizkian;
eta, orain irakurritakoan ere, len iñoiz adi-
tu izan ez balitu bezela, aditzen zituan. Jo-
se Antonio Loinaz-Otaño'ren kuadernotik
artuak ditugu:

Errekalde Zarrak, alegia, Jose Bernardo-
ren aita ta Pedro Mariren aitona zanak:

jaunak bildu zuanetik. Onek jaso zuana beste one-
la dio: 7: berriz aitara juaten badira.

Mikelaren semeak:

Jeneru oiek beria egiten
nola ez baidiran zabarrak,
ederki asko zaitzen dituzte
goiz eta illunabarrak;
lengo astian moztu zizkidan
nere babarrun ederrak,
berriz aitara juaten bada
nik moztuko'izkat adarrak.

(6) Jose Antonio Loinaz-Otaño jaunarena: 7-8:
zakar-pilla ona jartzen bazaio — estaliko dik *ba-
ria*.

.....
.....
.....
.....
auzo erriyak bezela dira
Probintziya ta Naparra,
Sorain'darra zala uste nuen
ta Esnarritzako Zakarra.

Zakarrak:

Bost sufritu biar dik
Agustin Zakarrak,
neri jan dizkidate
tabako ederrak,
gizon abillak dituk
Errekaldetarrak,
zuzen botatzen dizkik
bariak adarrak.

Bidian billatu det
Larraulko *baria*,
gaubian egiten du
bere lanteria,
onek janda kontentu
ez dago jabia,
malezi asko duban
babarrun-jalia. (7)

* * *

(7) Bertso onek, Mikelak esan da sail ontan bigarren jarri degun bertsoarekin zer-ikusi aundia du.

Urrengo bi bertsoak Errenteri-ko Pello Zabaleta bertsolariari kopiatuak dira. *Zakarra* ta *Baria* Oiartzuarrak zirala uste zuan Pellok: bañan badakigu nungoak ziran. Gertaera ta bertsoak onela esaten ditu:

“Garai batean ba omen ziran *Zakarra* ta *Baria* izengoitia zuten bi gizon. Zakarrak tabakoa jarria zeukan txoko batean. Bareak joan da kendu egin dio. Jakin du Zakarrak, ta, urrena alkar topatu zutenean, onela kantatu zion:

Neri *Zakarra* deitzen didate
ta iri berriz *Baria*,
besterenetik arrapatzeko
baduk abilidadia,
gauza ondatzen ikusi eta
ez da kontentu jabia,
ez-irudian pranko pixkorra
ganadu ezur-gabia.

Ganadu orrek zaitutzen ditu
goiz eta illunabarrak,
besterenetik arrapatzeko
zeren eztiran zabarrak,
uste gabeen eraman dizkit
nere tabako ederrak,
berriz aietan topatzen badet
moztuko dizkat adarrak.

ZAKARRAREN SEMEA

Zakarrak seme bakarra (1) izan zuan, Jose Domingo; au jaiotzatik iñozo samarra zan. Ta aitak billatu zion andrea; arentzat tokatzen etzana billatu ere.

Oso *señorita* zan andre ura.

Ezkondu zan gauean, andrearekin ikararuta, loko-pillan (2) lo egin omen zuan Zakarraren semeak.

Gogoan izaten det: egun batez, Lezora joanda, antxen giñan ama ta biok. Nik amabi urte nituan orduan. Zakarraren semea ere eldu da bere andrearekin, ta andreak iges egin dio. Orduan gure ama zanari galdezka, andrea galdu zitzaioa-ta. Ta guk ikusten andrea, kaballero batekin balkoi batean.

Alaxe bizi ziran, da andreari itzegin zion Zakarrak. Berak errañari esandakoa ta onek erantzundakoa, bertotan jarri zuan gero:

(1) 1852'ngo Agorraren 4'an jaio zan, gaueko amabietan. Biaramonean bataiatu zuten, "Jose Domingo Paciens" izena ezarririk. Aita-ama ponte-koak: "Siendo Padrinos el Licenciado Dn. Jose Antonio de Zuaznabar natural de Alzo-Arriba y su hija D.^a Dominica de Zuaznabar natural de Azcoitia y residentes ambos en Aduna".

(2) Loko = Arta-burua aletu ta gero, alea kendu ta gero alegia, gelditzen dana. Lokotsa esaten diote beste batzuek.

Zakarrak:

Matrimonioak badu
milla eginkizun,
jakin bear zenduke,
ez dakit dakizun;
etxian daukazula
ez besterena jun,
ba al dakizu, Manttoni,
zer egiten dezun?

Erraŕiak:

Matrimonio santua
guk artu genduan,
alkar serbitutzeko
biar zan moduan;
ni ere askoren gisa
besterena jua,
etxian ez neukan ta
zer egingo nuan?

Beste bertso bat ere bazuan:

.....

.....

.....

.....

ustez itzegin nion
biar zan moduan,
atiak itxi eta
ark utzi niñuan. (3)

(3) Lenengo ta bigarrenko bertsoak ezagunak dira

Zakarra-ta, ondo bizi zirala esaten zuten. Nere koñadu bat ere, Jose Mari, Ameriketara joan zana, etxe artan morroi izana zan. Bañan ezkondu ta laister, diruak eta al zitudan guziak arrapatuta, Ameriketara alde egin zuan errañak. Bai; nik aditu nion bein sermolari bati, abererik gaiztoena muturra lotuta bentzitzen dala, bañan emakume gaiztoa ez. Esaera zarra ere bada, emakume gaiztoa piztirik gaiztoena baño okerragoa dala. Ta egia aundia gañera!

Euskalerrian. Bañan senar-emazte batzuek alkarri kantatu zizkiotela diote. Mikelari entzunda, ordea, argi ta garbi dago ori ez dala, gertaeraren ez-jakiñean bertsoak nolabait ere jantzi-naia baizik. Aldaketarik geienak ere ortik sortuak dira.

Inprentaren izenik gabeko bertso-paper batean, beste bertso askoren artean: 1/1: Matrimoniyuak ditu; 1/7: kuidaro, Mari Antoni; 2/5: ni're zu bezelaxe.

Tolosa'ko Estanis Urruzola'ren eskuz idatzitako kuadernoan:

1/ Familiak badauzka milla eginkizun,
jakin bear zenuke ez dakit bākizun;
Joxepa Erramuna zer egiten dezun?
ni etxian utzita bestegana ez jun.

Matrimonio santu au guk artu genduan,
alkar serbitutzeko bear zan moduan,
ni ere zu bezela bestengana juan,
etxian ez nuen da zer egingo nuan?

Lasarte'ko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabar'ek: 1/7: Mantoni, beiratu ondo; 2/5: zu bezelaxe ni're; 2/7: falta zinduzten eta.

AZKENA

Olako paraderua izan zuan Zakarrak. Aurrena andrea illa izango zuan; guk ez genduan ura ezagutu. Gero, emakume ondadorara arek, danak ondatu.

Ola gelditu zan azkenerako Zakarra gizarajoa.

Bañan ez dakit noiz il zan. Ez oraintxe beiñepein! (1)

(1) Zakarra 1886-ngo Abuztuaren 22-an il zan, goizeko seiretan, *endocarditis* gaitzarekin, Esnarritzaga'n. Ala dio Asteasu'ko elizako laugarren eriotz-liburuak, 79 orrian:

“En la Villa de Asteasu, provincia de Guipuzcoa, Obispado de Vitoria, à veinte y tres de Agosto, de mil ochocientos ochenta y seis, yo el infrascrito Presbítero, Cura ecónomo, de la Iglesia parroquial de San Pedro Apostol, *mande* dar sepultura eclesiástica, al cadáver de Dn. Agustin de Elola, y Beovide natural de esta, de setenta años de edad, y de profesión labrador. Falleció a las seis de la mañana del día anterior, en la casa denominada *Esnarritzaga*, de muerte natural, ocasionada, segun certificación facultativa, por endocarditis. Era hijo legítimo de Dn. Luis de Elola, y de D.^a Teresa Antonia de Beovide, naturales de esta. Se hallaba en el acto del fallecimiento viudo de D.^a Joaquina de Urriozola, natural de Azpeitia provincia de Guipuzcoa. Recibió los santos sacramentos de Penitencia, sagrado Viático, y Extrema-Uncion. No testó. Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio Dn. Angel de Zavala de profesion labrador, y Dn. Justo German de Bengoechea, de profesion Sacristan, naturales, y vecinos de esta villa de Asteasu. Para que conste firmo, fecha ut supra. Tomas de Eguibar.



PATXI BAKALLO
(1832-1898?)

**(Buenos Aires'en ateratako erretrato batetik
Aialde'k egiña)**

PATXI BAKALLO BERTSOLARIA

Patxi Bakallo bertsolaria, “Juan Francisco de Belaunzarán y Zabala”, Erreterria'n jaio zan, 1832 urteko Urriaren 31'an.

Gurasoak zituan: “Miguel Joseph”, ernaniarra, ta Juana Maria, aranoarra. Aitaren aldeko aiton-amonak: “Joseph” eta “Francisca de Erausquin”, biak ernaniarrak; amaren aldekoak: “Joseph Domingo”, aranoarra, ta “Maria Gregoria de Senosiain”, euskeraz Gares eta erderaz Puente la Reina esaten zaion errikoa. Garai artan euskeraz egingo zan erri ontan. (1)

(1) Erreterria'ko 12'garren bataio-liburua, 40'gn. orria.

Bataio-agiri ontan, Patxiren deitura Belaunza esaten da. Guk Belaunzaran jarri degu, bere ezkontz-agirian, ta bere seme-alaben jaiotz-agirietan onela dagoalako, ta gaurko egunean ere bere ondorengoak onela erabiltzen dutelako.

Eskerrak eman bear dizkiogu Ermani'ko Justina Iraola'ri; bera izan ez balitz, ez det uste Patxiren deitura jakingo genduanik. Ta deitura gabe, alpe-

1856/XII/26'an ezkondu zan, 24 urterekin, Ernani'n, bertako alaba zan Maria Ramona Iraola'rekin.

Etxea, Oianabarren, edo Oianeder, Ernani'ko Osiñaga ballaran zuten. Antziñako etxe aundi-ederra da. Ontan nagusia bizi zan. Aldamenean, berriz, ola zan. Orain urte asko ez dala ere, sutegia, ikatztegia, lan-tokia ta abar zein tokitan izanak ziran, garbi asko ikusten omen zan.

Patxi, esan digutenez, bizi-modua ateratzearren era askotara saiaturako gizona izan zan: etxean taberna izan zuan, mineral-karraio ibilli zan, nekazaritzan zerbait bada ere alegindu zan... Ta, bati entzun diodanez, itxas-arrantzara ere bai, bakallotara, Ernani'tik artara iñor joaten etzalarik; ta, ain zuzen, orregatik ezarri omen zioten Bakallo izengoitia. Bañan, nork jakin ola ote dan?

rrikako lana genduan Patxiren jaiotegunaren billa eliz-liburuetan astea. Ta ara nundikan zekian berak: bere aitona, aitaren aldekoa, ta Patxiren emaztea anai-arrebak ziralako.

Deitura jakin ondoren, Ernani'ko bataio-liburuetan begira asi giñan. Alperrik ordea: Patxik jaiotzearen zuan urteetan, etzan Belaunzaran deitura zuanik iñor ere ageri. Orduan Patxiren seme-alabaren baten bataio-agiriaren billa asi giñan. Deiturak Belaunzaran Iraola bear zituztela, bagenekian. Bai bereala arkitu ere; bañan aitaz, Patxiz alegia, Errenteria'ko semea zala zion.

Oiartzun'en bada oraindik Bakallotarra izengoitia duanik. Gure artean izengoiti bera erri bitan da irutan ere izaten baita, onek ez luke, besterik gabe, ezer esan nai. Bañan besterik ere bada: oiartzuar oiek, izengoitia ez-ezik, deitura ere Patxirena bera dute: Belaunzaran. Patxiren familia-koak izango dira, beraz, nolabait ere.

Oiartzuar oiek esan digutenez, izengoitia beren lengo jatorri-etxetik datorkie. Etxe orri Bakalloenea esaten zitzaion; Oiartzun'go Iturriotz ballaran zegoan. Etxekiten orde beren aurrekoetan bertsolaririk izan ote zan.

Patxiren izengoitiaren sustraia nundik dan, oso kontu illun eta nastua da beraz. Bakallo ez-ezik, Bakallero ta Bakallotarra ere esaten omen zioten.

Patxiren bizitza, bi zatitan bereizten da: Euskalerrian pasa zituan urteak, eta Ameriketara, eriotza arte, egin zituanak.

Seme-alabak ere, batzuek emen ta besteak an jaio zitzaizkan. Emengoak, guziak Ernani'n jaioak, onako auek izan ziran: Franziska Ramona (1859/I/23), Joakina Inazia (1860/I/31), Juan Pedro (1861/VIII/24), Juana Josefa (1865/I/27), Pedro Maria (1867/VII/4) ta Jose Maria Eusebio (1873/III/4).

Ta emen bizi-modua ezin atera zualako, Argentina'ra joan zan fameli guziarekin. Ernani'n esan digutenez, karlisten bigarren gerrate inguruan joana izan bear zuan. Ta itxurak ere ala dira: emen jaiotako seme-alabetan azkena, Jose Maria Eusebio, 1873 urtean sortu zan; urte ori ezkeroztik ez da besterik ageri, ta urte oietan piztu ta sutu zan gerrate ori.

Argentina'n beste iru seme-alaba izan zituan: Joakin, Domingo ta Ana. Ana au, orain oso urte gutxi illa da. Euskalerrian ere izaten zan, Zarautz'en, bere seme baten etxean. Gauza asko jakingo zuan bere aitaz, bañan, gerta oi danez, iñork galdetu ta jaso ezean, berekin eramango zituan zekizkian guziak...

Ana onen semea, ez da bere lau osaba-izebaz baizik oroitzen. Bere amarekin bost senide, beraz, Patxiren seme-alabak: Franziska, Josefa, Joakin, Domingo ta Ana. Besteak, agian, illak izango ziran. Ain zuzen, txetasun au oso egoki dator Patxiren bertso batekin:

Kriaturak izandu
ditut bederatzi,
lau il zitzaizkidan ta
bost ditut bizi...

Argentina'n zer lanetan saiatu zan, suerterik izan ote zuan ta abar, geroago, bertsoetan alegia, arkituko du irakurleak. Andikan bertsoak zenbait aldiz bialdu baitzitian, bere ango bizitzaren berri argi ta garbi adieraziaz.

Auxe esango degu orain: obe ustean joan zan, noski, bañan an ere zakurrak ankutsik zebiltzala ikusi zuan. Ta damutu zitzaion joana. Bertso batean ala dio beintzat:

dirua banu joango nitzake
Europara ere ostera...

Bañan bati entzun diogunez, emen egin-dako zor guziak andik pagatu egin zituan. Agidanean, azkenerako kukuak ondo jo zion...

Bere billobak eta Ernani'n esan dizkigunetarik, onako erri auetan beintzat bizi izan zan: Buenos Aires, 25 de Mayo, Trenque-lauquen, ta Mercedes.

Askori entzun diogunez, oso bertsolari ontzat jotzen zan garai artan Patxi. Emen gelditu izan balitz, Xenpelar ta Txirrita añakoa izango omen zan. Larogei urtetik gorago ernaniar batek esan digunez, bere aita zanari entzun izan omen zion, nola ikusi zituan Xenpelar ta Patxi Bakallo alkarre-

kin bertsoan, Ernani'ko plazan, kale nagusiko kantoiean.

Ain zuzen, Xenpelar 1835 urtean eta Patxi 1832 urtean jaioak ziran; ta erri berean, Errenteria'n, jaio ere. Orregatik, alkarren lagunak edo alkarrekin artu-eman aundia zutenak, edo alkarren berri ondo zekitenak zirala, ez dezakegu, nik uste, dudarik egin.

Irakurleak geroago ikusiko duanez, Patxi bi bertso bialdu zizkion, bein batez, Xenpelarri bertsoarako egokiera jarriaz. Bertso-pare ori desapiyotzat artu izan da beti. Bañan bertso batean desapiyo esaten da: "desapiyo ori da Bentaberrirako"; bestean, berriaz, gonbidatutzen: "gonbidatutzen ditut nai badute etorri". Gure ustean, bertso oiek ez dute kontrarioari izaten zaion amorruren izpirik, bai ordea lagunarekin izaten dan umore-kutsua.

Dana dala, Patxi Bakallo bere indarrak Xenpelar aundiarenekin neurtzen zekiana zan. Orregatik, eta jaso ditugun aren bertsoak irakurrita ere bai, Euskalerriarentzat penagarria izan zala, esan dezakegu, ura emendik Ameriketara joana.

Ez dakigu noiz il zan, ezta zein erritan ere. Bañan, Zarautz'en bizi dan bere billobak uste duanez, Buenos Aires'en ilko zan, 1898 urte inguruan.

“LEIOTIK LEIORA”

Oianabarren'en ondo-ondoan, etxe txiki bat dago. Txurdiñanea esaten zitzaion garai artan. Etxe ontako alaba bat, neskatxa gaztea, bertsolaria zan. Ta Patxi ta biak, askotan jarduten ziran bertsotan alkarrekin. Goizean egun onak emateko, bertsoa; ta alkarri esan bear zioten guzia esateko ere bai, kasik.

Jai-goizetan, Ernani'ko Osiñaga aldeko jendeak Oianabarren'en ataritik pasa bear zuten mezetara joateko. Bein baño geiagotan gertatu omen zan, ordea, meza-zale oiek andik pasatzerakoan Patxi ta aldameneko neskatxa bertsotan aritzea, ta, auen bertsoak entzuteagatik, gelditu ta mezetara berandu irixtea.

Ala, gau batean, Patxirenean alaba bat jaio zan. Ta goizean, aldamenekoai berria ematearren, leiotik kanpora muturra atera ta bertso au bota zuan Patxik:

Bertsoa botako det
leiotik leiora,
bart gure etxe ontan
alaba jaio da;

iñork nai badu etorri
orren bataiora,
aur orren gurasoa
Patxi Bakallo da. (1)

Ta Xenpelarrek, bertso onen berri izan
zuanean, beste au kantatu omen zuan Ba-
kallorentzat:

Beraz andria dezu
ezur-berritua,
ala eman didazu
neri mandatua;
bankete bat eiteko
badet desiuia,
abisatu zaidazu
noiz dan bataiua. (2)

(1) Justina Iraola, Txurdiñanea.

Au da Patxiren bertsorik ezagunena. Orregatik
aldaketa asko du. Ona emen batzuk:

Errenteri'ko Juan Lujanbio'k: 1: Izketan ari gera;
5: danak etorri zaitezte.

Jose Elizondo zanaren eskuz-idazkietan:

Bertsua botako det leiotik leiora,
ongi enteria dedin aurra ta auzoa;
bartarratsian gure etxian seme eder bat jaio da,
iñork nai baldin badu betor bataiora.
aur onen gurasoa Pello Bakallo da.

Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolariak: 1 Kantari
astera nua; 5: nai duenak etorri.

(2) Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolaria.

“KRIATURAK IZANDU”

Itzaurrean esan danez, Argentina'tik onera bertsoak bialdu zituan Patxik bein baño geiagotan. Iru sail oso, aurrerago arkituko ditu irakurleak. Onako bertso au ere, Patxik andik onera bialdua da:

Kriaturak izandu
ditut bederatzi,
lau il zitzaizkidan ta
bost ditut bizi;
Jaungoikoai zor dizkat
ogei milla grazi,
berak lagundu eta
danak ditut azi;
gozo edo gazi
mantendu ta jantzi,
ez txarrera utzi,
dotriña erakutsi...
bost egi esan eta
ilko dek Patxi. (1)

(1) Antonio Pagola, Emani.

“GOIZIAN JEIKI ETA”

Garai artan, minerala egosteko ola asko zan, Urumea ibaiaren bazterretan, Ernani'ko partean: Oianabarren, Osiñaga, Epele, Pagollaga, Ereñozu, Amillatz, Olazar, Olaberri, Pikoaga, Añarbe,...

Minerala, aaletan karreatzen zan. Beera-koan urak eramaten zuan; gorakoan, idipareak tiratzen zioten aalari ibaian sartuta.

Asko lekutan, ur lodia zegoanetan alegia, igari bezela ibiltzen ziran idiak; ur mea zegoanetan, berriz, aala arrastaka bezela joaten zan, iya ondoa joaz. (1)

(1) Martutene'ko baserritar bati bein batean entzun nionez, mineralketan aberastutako gizon batek onela omen zion eriotz-orduan: “Berrito bizitzeagatik, emango nuke nik, ba, pozik asko, txanela bat bete urre!

Beste gertaera au, berriz, orain urte gutxikoa da: Garai aietan minerala gaizki egosten zan, aundiena kendu ta gañerakoa bota egiten zuten. Olako botakin-pilla aundi bat zeukan baserritar batek bere lurretan. Saldu egin zuan, txanpon-mordoxka polit bat jasota; baita erosleak ere gaurko moduz berrito egosi ta mineral eder-garbirik atera.

Patxi Bakallo, etxea ibai ondoan baitzuan, lan ortan ere ibilli zan.

Egun batez, ba omen zijoan mineral-karraio, bera aala erdian exerita; idiak, berriez, uretan sartuta. Alako batean, Zikuñaga'ko ixkiñan emakumezko ijito bat ikusi zuan ibai-bazterrean, eta aalatik bertso au bota omen zion:

Goizian jeiki eta
onen abiyara,
iñun ezer senti badu
lapurreriya da;
gezurrik gabetandik
ori egiya da,
kontzientzi gaiztoko
Judasen kriyada. (2)

(2) Eduardo Egaña, 84 urte, Emani'n Portu ballaran jaioa ta bere 20'garren urtea ezkeroztik Donibane-Lohitzun'en bizi dana.

“IÑORK BADAIZUTE”

Manuel Lekuona apaiz jaunak onela dio “Literatura Oral Euskérica” deritzaion liburuan, (Donostia, 1936):

“He aquí otras dos estrofas de desafío que Bakallo, de Ernani, vecino de Astigarraga, dirigió a Xenpelar (criado entonces en Egurola de Oyarzun), y la respuesta que recibió de éste:

Bakallok:

Iñork badakizute
Oiartzungo berri,
eskumuñak Ardotxi
eta Xenpelarri;
libersiyo polit bat
nai badute jarri,
bidez erdi bezela
dago Bentaberri; (1)
gonbidatutzen ditut
nai badute etorri.

Desapiyo ori da
Bentaberrirako,
konpormatzen badira
bidez erdirako;
ezpazaie egiten
gogorik arako,

(1) Bentaberri, Oiartzun eta Ernani bitartean “bidez erdi bezela”, aldapa gain-gaiñean zegoan. Orduan benta zan; gaur baserri biurtua dago.

lagun bat artuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Errenterirako.

Xenpelarrek:

Pazku bigarren goizez
artu nuen karta,
bestek firmatua da,
ez da zure palta;
suma ederra dezu,
eztarriya alta,
abiyatuko nauzu
itz oiek esan-ta:
gizona gonbitzia
libertsiyo bat da.

Xenpelar probatzeko
egin dute faza,
gizon baten itzari
eman diyot traza;
ez Astigarratikan
onuntzago pasa,
bertara juango naiz,
egon zaite lasa;
nai dezun ordurako
eska zazu plaza. (2)

(2) "Xenpelarren bertsuak, 1.^o idaztia, Makaza-
ga'ren irarkolan, Errenderi": 1/1: Iñork baldin ba-
daki; 1/6: nai genduke jarri; 2/9: igual; 3/1: goi-
zian; 3/7: nazu; 3/8: abek; 3/9: konbidatzia; 4/2:
egin dute masa.

Baserrik: "La Voz de España, 26-I-1947: 3/5:
soma; 3/9: gizon gonbiratzea; 4/7: neu bertara
joango naiz.

“ATZO SANTIYAGO ZAN”

Urte batean, Patxi Bakallo Billabona'ra eramán zuten bertsozara, Santiagotan, erriko festetan alegia. Joan zan, bañan bai kantuan irabazitako diru guziak bertan gastatu ere.

Biamamonean, artean Billabona'n zala, sagardotegira joan da sagardoa saltzen ari zan amonari, onako bertso au kantatu zion:

Atzo Santiyago zan
gaur biyaramona,
laneko gogo gutxi,
erateko ona;
erariya pagatzen det
basoko txanpona,
salduko badet ere
andriaren gona,
beste baso bat bete
biezu, amona. (1)

(1) Antonio Pagola, Ernani.

BERE BURUARI

Onako iru bertso auek, Patxi Bakallok bere buruari jarriak omen dira. Ala esan digu bertsoak buruz zekizkianak, Oiartzun'go Okillegi baserriko etxejoaunak, Jose Zugarramurdi'k:

1/ Iñor etortzen bada
Bakaloren galdez,
exkiñan ortxen dago
ardo edanez;
gerta laiteke zenbait
euskaldun ta prantzes,
ori egiya dala
egin zazu trabes;
lanetikan iges
txit nabil aldrebes,
andria dolorez,
egiyak esanez,
alare konforme da
bere gizonez!

2/ Mundu guzian dago
gauza ageriya,
nola aberasten dan
bertsolariya;

nekez etxeratze'itu
arto ta gariya,
igual dendatikan
soñeko berriya;
badaukat premiya
artzeko neurriya,
diruz naiz urriya,
deus ezin baliya...
au da nere pesta ta
erromeriya! (1)

3/ Nere bizimodua
nua deklaritzen,
erozein jarri bedi
erreparatzen:
zorrak erraz egin ta
neketan pagatzen,
oraiñ aldian ori
zait neri gertatzen;
laboriak artzen,
kontuz dira neurtzen,
errotan lajatzen,
an ere bajatzen,
nork bere deretxorik
eztik barkatzen.

(1) Bertso au, zenbait aldaketarekin, Fernando Amezketarraren liburuan ere argitara genduan: Auspoa, 54, 61'gn. orri-alde.

(1881)

PATXI BAKALLO ETA BERE SEMEA

Aita Donosti zana, bertso-bilduma eder baten jabe zan. Artan, beste gauza askoren artean, *Cuaderno de la Argentina* deritzaion bat ere bada. Makinaz idatzita dago, eta, gure iritzian, beste kuaderno batetik kopia-tua da. Kuaderno ortan, izenburua onela duten bi bertso-sail arkitu ditugu: batek: "Patxi Bakallero eta bere semea"; besteak: "Bertsuak Patxi aitak emanak". Dударик gabe, Patxi Bakallorenek dira.

Bertso auk ezagun dute Gipuzkoako euskeraz asmatuak dirala, onako era au, kopia-tu edo jaso zituana lapurtarra-edo izanik, Bidasoaz arunzko euskeraz pixka bat kutsatuta badago ere:

Semeak:

Mila zortzireun larogei ta bat
orai dijuan urtea,
azienda bat erosi dut nik
iduritu-eta merkea;
ongi kuidatu bear genduke
ori umatu artea,
bertze orrentze ezta izango
nere senide-partea.

Aitak:

Kanta berri bi kanta ditzagun
jendea konsolatzeko,
semiak auntz bat erosi digu
sosa adelantatzeko;
lengo neguan agertua da
primaderan umaitzeko,
azienda onaren jabe egin gera
familia mantentzeko.

Semeak:

Leku onetik etorria da
bortz kuarta esneren itzean,
laur errearen pastoa janda
mantenduko da etxean;
txakurra baizik ez ginuen len,
sartu gerade auntzean,
aitak eta amak edango dute
erreberoa zartzean.

Aitak:

Auntzak ez dizu kreditu onik
sekulan iñon izandu,
kinta batean sartutzen bada
arbola asko galtzen du;
gríña gaiztoko animalia
ezin liteke zuzendu,
nahigo nuen orren dirua
jokoan galdu bazendu.

Semeak:

Kreditu txarra seguro nuke
asiko banintz jokoan,
gaur edo biar animaliak
balioko du kanpoan;
berriz okerrik egiten badu
sarturen degu zepoan,
auntz ori merke eresia da,
nik ez dut galdu tratoan.

Aitak:

Tratu ederrak eginagatik
suzeditzen da galtzea,
gauza txikia iduritzen zait
gizona deskuidatzea;
multa multaren gañian dator,
arriskatzen du eltzea,
okasionetik apartatzeko
obe zenduke saltzea.

Semeak:

Perdida aundia eldu zait neri
asitzen banaiz saltzera,
artzen duenak dudarik gabe
bueltatuko dit atzera;
pikardia asko dakizki orrek,
ereman zazu etxera,
gostu duenak arriska beza,
banoa errifatzera.

Aitak:

Bara ta erdi luze baditu
buruan dauzkan adarrak,
itxuraz ere arki lezake,
kolore zuri nabarrak;
egunsentian marrakaz asi,
ixildu orduko amarrak,
amairu libra pisatuko du
orren lepoko kalparrak.

Semeak:

Oraindik ere etzait damutu
tratu orretan asia,
azienda ortaz gustatutzen da
ikusten duen guzia;
alambrea aise pasatzen du orrek,
zer animala bizia!
munduan bertze askoren gisa
gaztetan gaizki ezia.

Aitak:

Agoztuaren ondar egunak
Santa Rosa eta San Ramon,
motibo orrek berotu gaitu,
ez ginezke ixilik egon;
gure porfiak ez du balio,
ene semea, lau txanpon,
zure gostua egizazu eta
gañerakoak or konpon.

Semeak:

Animali bat nola daukadan
yakin dezaten kanpuan
len ere badut
..... munduan,
.....
.....
kontrariorik agertzen bada
jarriko diot saltuan. (1)

Aitak:

Errifatzeke soziedadea
ederki egina dute,
Jose Manuel bere primoa
artu du eskribiente;
dotor batekin itz egiteko
dabiltza sufiziente,
artzen duena kopetan gasta,
ala kontatu diate.

Semeak:

Kintero denak ernatzen ditu
zenzerroaren otsera,
alambraduran jarritzen dira
lazoan arrapatzera;
baña ori aise eskapatzen da
aurrera edo atzera,
lapurrerian tripa beteta
or etortzen da etxera.

(1) Aita Donostiren kuademoan ezin irakurri de-
gu osorik bertso au.

Aitak:

Bertsu berriak errematian
nik erranen dut egia,
adarrak zorrotz, begiak erne,
gañera saltalaria;
mundu guzian jenero orrek
libre du lapurreria,
diruarekin ez da pagatzen
orlako animalia.

BERTSUAK PATXI AITAK EMANAK

Ernaniar asko oroitzen da oraindik ere bertso-sail ontaz, batez ere 7 ta 11'gn. bertsoetaz. Emen jarri ditugu Aita Donosti zaren bertso-bilduman, Argentina'ko kuaerno ortan, dauden bezela.

- 1/ Hirur urteko pasadizua
asi bear det kontatzen,
beti ixilik balin bagaude
anzturen zaiku kantatzen;
asi bear det bear bezela
ote ditudan plantatzen,
neronek pruebak egin artian
enintzen eskarmentatzen.

- 2/ Hirur urtean *Once*'ko plazan (1)
aritu nintzen lanean,
justu-justua jateko ainbat
irabazitzen zenean;
errespetuko lekua nuen
gobernalaren mendean,
andik atera nintzenaz geroz
enabil planta onean.

(1) *Once*'ko plaza, Buenos Aires'ko plaza bat da. Au eta beste oar guziak, Patxi Bakalloren etxe ondoan jaio, Argentina'n urte asko egin, da orain berriro jaiotetxean bizi dan Pedro Iraola'ri zor dizkiot. Pedro au, Patxi Bakalloren pariente da: onen amona ta Patxiren emaztea, anai-arrebak.

3/ Andik irten da korralietan (2)
bederatzi ilabetian,
irabaziak geroko eta
gau ta egun beti nekian;
español fonda "*Esquina Gaucho*"
deitzen dioten batian,
etxe artara sartu nintzaden
familiaren kaltian.

4/ Kuarto bat bertan arkilatu eta
asi ginen trabajatzan,
txanga batzuek irabaziez (3)
ladrikoa desparbatzen; (4)
modu ortako proportzioak
neri zeraizkit suertatzen,
uda guziko lana bazela
ez baginen aserretzen.

(2) Korralak, erderaz *corrales*, ganadu-mataderiak dira. Gaurko egunean ba omen dira milla langille enpleatzen dituzten korralak, aragia izoztu ta mundu guzira bialtzen dutenak.

(3) Txanga: lan bat bukatu arteko enplioa; portuetako karga-deskargak, adibidez.

(4) Enparbatu, erderaz *emparvar*: pilla egin, meta egin; desparbatu, erderaz *desparvar*: pilla edo meta desegin.

5/ Lenguajia diferentia,
ezin konpreni esanik,
asi orduko pentsatu nian
“Ez duk orrekin gauz onik!”;
geiegi ere esango nuke (5)
esango banu izenik,
nik orlakorik ez dut ikusi
bataiatuko gizonik.

6/ Lau milla peso antxe ditugu
desparban irabaziak,
bertze munduan kobratutzeko
esperantzetan utziak;
ni bezelaxe gelditu ziren
koadrillan ziran guziak,
langilerikan pagatu gabe
ihes egin du nausiak.

7/ Labe-zalian kiebra eginta (6)
or yuan zaiku ihesi,
“bihar artio” esan zuen ta
geroztik ez dut ikusi;
neure koleran elduko nion
borroka ere Judasi,
erreta ere ez da pagatzen
zenbeit olako nagusi.

(5) zeinden geiegi ere esango nuke. Luzeegi, be-
raz. Patxik jarriko etzuan bezela, noski. Laburtu egin
degu, *zein den* kenduta.

(6) Labe-zalia: ladrillo egiteko labe-zalea noski.

- 8/ Pasto pikatzen aritu gera (7)
gero ilabete bian,
ardiki errea gatzikan gabe,
galleta panaderian; (8)
belaunak pisu, kopeta illun
eta tristura begian,
etzantza berriz ikusgarria:
oherik gabe aterian.
- 9/ Ez diru eta ez lan gelditu gare
uda pasa ta neguan,
jatekoa iñork fiatu nai ez
an estiloa zeguan;
familia ere gaztexko eta
oso alrebes neguan,
orain kanpora ateria naiz
ogei eta sei leguan.
- 10/ Zerbeit geiago ateratzeko
etorri nintzen kanpora,
ber tamañetan arkitzen nazu
ezer gutxiren ondora;
interesetan beti bajatzen,
urtietan berriz gora,
beti geroko esperantzetan
dijua nere denbora.

(7) Pasto pikatzen: belar edo alpapa ebakitzen.

(8) Galleta: ogi-klase bat, emengo opillak bezela, bañan denbora askoan irauteko egiña. Iru illabetean ere irauten du.

11/ Sei arroba t'erdi nituen len,
biurtua naiz bostera,
au da mudantza gizon sanoak
urte batetik bestera;
dirua banu joango nintzeke
Europara ere ostera,
zer tamañetan arkitzen naizen
gorputza erakustera. (9)

(9) Azkeneko bertso au, Udarregiren aitarena dala esaten da Auspoa'ren 56'gn. liburuan, 20 ta 21'gn. orri-aldeetan. Gure ustetan, Patxi Bakalorena da batere dudarik gabe.

Udarregiren aitarena dala batek bakarrik esan zigun, eta etzekian bertso au baizik. Patxi Bakalorena dala diotenak, berriz, asko dira, ta bertso asko ematen dute.

Bertso au onela artu nion, Ernani'ko Abalabide'n jaio ta gaur Donibane-Lohitzun'en bizi dan eta 84 urte dituan Eduardo Egaña'k:

Len sei arrua t'erdi banitzan
bajatua naiz bostera,
kristau sanuak au da mudantza
urte batetik bestera!
sosa baneuka juango nitzake
lengo lekura ostera,
zer tamañetan gertatzen naizen
gorputza erakustera.

(1889)

“DESGRAZIA BAT SUZEDITU ZAT...”

Bertso auek Argentina'n inprenta-arazi zitudan Patxik. Kanta-papera, Isaak Lopez-Mendizabal jaunak bialdu zidan andik. Onako moldiztegi ontan argitaratua da: “*Tipo. Lito. La Nueva Central Piedad 1041*”. Beraz, euskal bertsolaritzak landaretxo berri bat erne-arazi zuan itxasoaren arunzko aldean.

Paperak utsegite ta oker asko du bertsoetan, eta ez da, noski, zer arriturik. Nabarmenenak eta zuzentzen errezenak, gerok zuzendu ditugu. Baña oraindik ere or gelditu dira, nola zuzendu bear diran antzematzen zailtxoak diran beste zenbait. Oiekiko lana irakurleak egin beza, nai duan eran.

Bertsoen gaiaz ez dago argibide eman bea-

rrik. Guri, irakurtzean, lengo bertso zar
batek diona gogoratzen zitzaigun:

Beti gustora biziko danik
ez da jaioko mundura.

Paperak izenbururik etzuan; “Desgrazia
bat suzeditu zat” gerok jarria da, lenengo
bertsotik artuta.

1/ Milla zortzireun larogei eta
beatzigarren urtean,
desgrazia bat suzeditu zat
Buenos Aires’ko partean;
egun artaz oroituko naiz
biziya dedan artean,
mediku ona ez banu izan
sartua nitzan lurpean.

2/ Alanbre batek enredatuta
makur bota det pausua,
kosta zitzaidan nere gorputza
lurretik ezin jasua;
espalda atera bi tokitatik,
ausia neukan besua,
asko pentsatzen ez nuen bañan
zer ordu lastimosua!

3/ Pedro San Martin deitzen dioten
mediku kuranderua,
ez da posible arrapatzia
gizon bat leialagua;
puñu azkarrak, jakintsua da,
kariñoz ere berua,
nere partetik bizi bedi ongi,
iltzen danean zeruâ.

4/ Lastimatuta dagon gizonak
dauzka alderdi laburrak,
Don Pedro jaunai abisatu diot
ausi ditudala ezurrak;
alde batera etortzia nai,
bestetik berriz bildurrak
pasa bezela kontatzen ditut,
oiek ez dira gezurrak.

5/ Etorri eta abiatu zat
“Zer dezu, Patxi?” galdezka.
“Len zuzen zeuden ezur pobriak (1)
ona nun dauden trabeska.”
Ikusi eta kontestatu dit:
“Ez ikaratu, deus ezta.”
Nere goguan: “Naiago nuke
atzo bezela baneuzka!”

(1) Paperak *lenago* zion. Luzeegi, beraz, punturako. Patxik etzuan orrela jarriko. Orregatik *len* utzi degu.

6/ Pedro San Martin famatua da
Amerikako lurrian,
neonek prueba ikusia naiz
nere begien aurrian;
probatu eta jakiten dira
mediku azkarrak nor dian,
zenbait lekutan gertatu banitz
ez negon leku txarrian.

7/ Akordatzeko moduan ditut
egun artako pausuak,
sufritutzeko sortua naiz ni
samiñak eta gozuak;
ez izan arren prezisamente
terreno peligrosuak,
uste ez diran parajietan
badaude estrapozuak.

8/ Arras batian gertatu banitz
beste askotan bezela,
testimonioz sortuko zuten
Bakallo mozkorra zala;
egun argitan suzeditu zan,
lanian ari nitzala,
ordu gaiztuan allegatzetik
Jainkoak guarda gaitzala.

9/ Bertutiaren indarrak dira
gugandik diperentiak,
ori sinisten ez duten denak
dirade inozentiak;
naiz izan bitez gizon azkarrak,
igual komerziantiak,
gure Jainkoak nai duen artean
gerade balientiak.

10/ Esan dirade alanbre orri
eskapatu izan banio,
...zi galduak izaten ditu (1)
edozein erremedio;
datorrenari ongi etorri,
dijuanari adio,
pazientzia artu biarko det,
bestenaz eztu balio.

11/ Bestek jana eman, bestek bestitu
lotuta nagon lekuan,
geienaz ere ala jartzen da
lapur andi bat zepuan;
besua ausita, triste burua,
nenguan klase bajuak,
iñoiz aisago kaminatu det
Buenos Aires'ko kanpuan.

(2) Lenengo itza ezin irakurri da osorik bertso-
-paperean. *Auzi* izango ote da?

12/ Amaika salto ibiliya naiz
errioan ta legorrez,
askok bezela banidaderik
ez det izandu indarrez;
franko manejuz gobernaturik
gorputza obeto biarrez,
familia dena auditua det,
ez daukat aurrik negarrez.

13/ Berrogei ta emezortzi urte
kunplitzen zaizkit Urrian,
asko ikusteko sortua naiz ni
mundura larru gorrian;
ni gertatu naiz mendian eta
igual plazaren erdian,
nik ainbat kopla botatakorik
gutxi da Euskalerrian.

14/ Ezurra ausita lastimosoa da
gizon zarraren erida,
ni bezela iñor gertatzen bada
egon zaitezte begira;
istanpatian atrasatu det
bizimoduko segida,
paseak pasa, konforme nago,
orain sendatzen ari da.

15/ Paper batian ortxen dabilta
amasei bertso berriak,
marka aundirik ez lezake egin
gizon beso-elbarriak;
bestela etzuten ikasiko ere
parientien erdiak,
izenetikan jakin dezaten:
Patxi Bakalok jarriak.

16/ Azkenerako karkulatu det
bertso batzuek saltzia,
nai det jendeak zertako diren
abertentzian jartzia;
mediku eta botika eta
sangijuela eta partxia,
bentaja aundia dator neretzat
orrekin pagatutzia.

PEDRO SANTA CRUZ
(1839-1905)

PEDRO SANTA CRUZ BERTSOLARIA

Pedro Santa Cruz bertsolaria, "Pedro Antonio de Santa Cruz y Echeveste", Andoain'en jaio zan, 1839 urteko Ilbeltzaren 30'an, goizeko ordu bietan. Gurasoak zituan: Jose ta Maria Kruz, biak ere andoaindarrak. Izena, Pedro Antonio, aita-jaunak, Pedro Antonio de Galardi'k erantsiko zion, baña bere denbora guzian etzioten Pedro besterik esan. (1)

Eliz-agiriak ez du zein etxetan jaio zan esaten, bañan, beraren seme Gregoriok esanda, badakigu Antzizu baserrian sortua zala. Baserri au, Andoain'go estaziotik Urnietan aldera dago, kamiotik eun bat metrora eskubitara, burnibideaz beste aldean Ta gaurko egunean ere Santa Cruz dira apelliduz, an bizi diranak.

(1) Andoain'go 8'gn. bataio-liburua, 190'gn. orri-aldean.

Ta Pedrok berak onela esaten du Andoain'go dantzariak jarri zizkien bertsoetan:

...ni ere Andoainen naiz
jaio ta azia,
ogei ta zazpi urtean
Anzizun bizia.

Bost senide izan omen ziran: Juan Bautista, Pedro gure bertsolaria, Martin Jose, Joxepa Joakiña ta Madalena.

Pedro, 27 urterekin ezkondu zan, 1866/IX/25'an, Andoain'go alaba zan "Ramona de Carrera"-kin. Andrea, gizona baño urtebetez zaarragoa zan. Aduna'n jarri ziran bizi izaten, Pagake edo Paake deritzaion baserrian. Baserri au, Aduna'ko zubia pasa ta eskubitara joanda dago. Gaztañadi bikaña omen zuan, garai artan, atarian.

Iru seme izan zituzten: Juan Bautista Kalisto (1867/X/14), Jose Juan (1870/I/15) ta Esteban Florenzio (1871/XI/7).

Irugarrengo au, jaio ta iru urte t'erdira il zan. Juan Bautista Kalistoren eriotz-agiririk ezta Aduna'n azaldu; bañan Santa Cruz bertsolariaren ondorengoak aren berrikerik ez dute iñoiz jakin.

Emaztea gazterik il zan, 38 urterekin, 1876/II/24'an, *de una afección pulmonar* eliz-agiriak dionez.

Ta Pedro berriro ezkondu zan, 1876/VII/18'an, Amasa'ko Larre baserriko alaba zan Manuela Antonia Arregi'rekin. Onek 25 urte zituan. Ezkontza, andrearen errian, Amasa'n egin zuten.

Sei seme-alaba izan zituzten: Martin Jose (1877/V/26), Jose Domingo (1879/XII/13), Jose Agustin (1882/XI/26), Antonia Josefa (1885/VI/13), Blas (1888/II/2), ta Gregorio (1891/IV/18).

Gaurko egunean guziak illak dira, seme-rik gazteena, Gregorio, ta alaba, Antonia, izan ezik. Emengo argitasunak, Andoain, Aduna, Amasa ta Ernani'ko eliz-liburueta-tik artuak diranak izan ezik, berai zor dizkiegu, Gregoriori batez ere.

Pedroren anai bat ere, Martin Jose zeritzana, Aduna'n bizi izan zan, Zabalberri baserrian; baita bertan il ere, 1926/VII/3'an, 77 urterekin. Aren ondorengoak dira eta aren apellidua dute, gaur egunean baserri ortan bizi diranak.

Arreba bat ere, Madalena, Aduna'n bizi izan zan, Pagoaga baserrian, bertara ezkondu, eta 87 urterekin il zan, 1928/V/15'an.

Nekazaritzaz gañera, beste irabazbide bat ere izan zuan: palanketa, tiroa sartzeko arri-zulatzea alegia. Ain zuzen Pedroren den-

boran egin zan Irun'dik Madrida bitarteko burni-bidea. Burni-bide au, ibaiaz beste aldetik badago ere, Paake'tik urre xamar igarotzen da. Pedro ere an aritu izan zan lanean. Arrobietan ere jarduten zan.

Pedro Santa Cruz ez omen zan plazetan bertsoan aritzen; bai ordea sagardotegi ta lagun-arteetan. Makiña bat bider kantatu omen zuan Pello Errota ta Joxe Bernardo Otaño'rekin. Auek, bat Asteasu'koa ta bestea Zizurkil'koa izanagatik, beren etxeak Santa Cruz'en baserritik urre xamar baitzituzten.

Ta are alderago oraindik garai artan, Aduna'ko zubia egin gabe baitzegoan. Ta, zubirik gabe, Aduna'tik Billabona'ra joaterik etzegoan ibaiaren alde batetik baizik, eta ontatik barrena zijoanak, Otañotarren etxe ingurutik, eta Karidade'ko bentaren ate ondo-ondotik igaro bearra zeukan.

Karidade'ko benta ontan izaten ziran inguru orretako bertsolarien billerak. Garai artan, txoko au izango zan, dudarik gabe, Euskalerriko bertsolari-baratzik eman korrena. Emengoxeak baitziran Otañotarrak —Errekalde zarra, Joxe Bernardo ta Pedro Mari—, Agustin Zakarra, Pello Errota ta bere anai Juan Kruz, Juan Jose Ugarte ta abar. Ta izen oiei beste bat erantsi

bearrean arkitzen gera gaur, beraz: Pedro Santa Cruz.

Egun batez, Joxe Bernardo, Pello Errota ta gure Santa Cruz au bertsoetan ari ziran Zizurkil'ko edo Billabona'ko sagardotegi batean. Beste bien etorria zer zan bazekian nunbait jendeak, ez ordea Santa Cruz'ena. Orregatik, onen bertsoekin arritu ta gustaturik, onela esaten asi ziran entzuleak: "Etzegok iñun olako Xenpelarrik! I aiz Xenpelar, i, ez Erreterria'koa!".

Biaramonean, onela esan zion auzoko bateg, alkar topo eginda: "Kaixo, Xenpelar!" Ta Pedrok: "Zergatik Xenpelar?" Ta besteak: "Zergatik? Ez al zizuten atzo esan Xenpelar baño ohea zerala?" Andik aurrera, Xenpelar izan zuan izengoitia. Berak, ordea, pena artzen zuan, bazekian, ba, bur-la-antzean esaten ziotena.

Egitazko Xenpelar, andik laister il omen zan. Onen eriotza 1869 urtean gertatu zan. Orregatik, ogei ta amar urtetik beerako gazte sasoikoak izango ziran artean bertso-saio artako iru bertsolariak: Pello Errota, Joxe Bernardo ta Santa Cruz.

Zoritxarrez, ez da Santa Cruz'en aotik aorako bertsoerik gorde izan. Bere seme Gregoriok bat bakarra eman digu.

Bertso jartzen ere saiatzen zan ordea, ta

oietatik zenbait eldu dira, Jaunari esker-
rarak, gure eskuetaraño, batzuek bertso-pa-
peretan, besteak, berriz, bere seme Grego-
rio onek buruz zekizkian bezela.

Pedrok gorde ta bildu egiten omen zuan,
txukun asko, berak jarritako bertso-paper
bakoitzetik ale bina edo iruna. Bera il on-
doren ere, etxean gordeta egon omen ziran
urte askoan; bañan, egun batez, bere seme
Martin Joxe zanak, etxerako gelditua za-
nak alegia, eskaleren bati eman omen ziz-
kan guzi-guziak. Pena ederra artu zuten,
noski, jakindakoan, bere senideak... Olako-
rik gertatu izan ez balitz, alde ederra izan-
go zuan liburu onek.

Soroan ari zala ere, bere artean argu-
rioan, kantuan alegia, jarduten omen zan.
Gero, etxera etorri ta kuarto batean sartzen
omen zan. Semeak ate-zirrikietatik ze-
latatu omen zioten bein baño geiagotan, eta
idazten ikusi zuten beti. Berak idazten bai-
tzituan, somatu-ala, bertsoak, eskola ona
zuan da.

Bertso-paperak saltzen, berriz, lenengo
ezkontzako seme Jose ibiltzen zan. Boza, lo-
di xamarra ta oso garbia omen zuan. Do-
nostia'ko Bretxa ta Tolosa'ko Zerkausia, to-
ki jakiñak zituan paper saltzeko.

Boza ez-ezik, etorria ere ba omen zeka-

rren bertsoarako. Artean mutil gaztea zaila, peri-egun batez, aitarekin Tolosa'ra joanda, Joxe Bernardo ta Pello Errotarekin egin omen zuan bertotan tabernaren batean. Ondoren, ala esan zioten auek aitari: "Mutil onek, segitzen badio, ez du gure bildurrik izango!" Etzion segitu, ordea. Ta il ere, gazterik xamar il zan.

Emen dijoazen bertso-salletaz gañera, Andoain'go ta Amasa edo Billabona'ko Misioenak ere jarri omen zituan, bañan ez ditugu iñon arkitu.

1891 urtean, Aduna'ko Pagake edo Paake ortatik Ernani'ko Alkatxuin baserrira aldatu zan, gero esango degun arrazoiagatik.

Emen amalau urte egin zituan; il zan arte alegia. Auzoan andre bertsolari giza-tzar bat omen zuan, eta arekin ere, alkarrekin aserre-aizea egokiturik, bertso-saio bat edo beste egiña izan bear zuan.

Pedro Santa Cruz, izu-aldi batetik il zan. Illunabar batean, gaizkiturik zegoan lengusu batengana joan zan, Fagollaga'ra, gau erdira arte gaixoari kontu egitera. Ordu biak inguruan, erreleboa etorri zitzaionean, etxe aldera abitu zan. Alako batean, ordea, bide erdian zakur aundi bat jarri zitzaion, ta ezin andikan iñola ere uxatu.

Parte gaiztokoa izango zalakoan, eta sor-

giña, pigura aurrean eta bera atzean izaten zala gogoraturik, makillarekin kolpea atzera tira zion, bañan orduan makilla eskutik kendu ziotela esaten zuan. Orrekin zakurra galdu egin zitzaion bistatik, bañan bera ikaragarri izututa gelditu zan.

Baita bereala gaizkitu ere. Dana aunditu egin zan. Izuarekin biotza mugitua zuala, esan zuan medikuak. Illabete iraun zuan. 1905 urteko Azaroaren 17'an il zan, 67 urterekin, gau erdiko ordu batean, Alkatxuin baserrian, *por insuficiencia mitral* eliz-agiriak dionez; biotzetik alegia. (1)

Bañan elizako eriotz-agiri ontan oker aundi bat dago: Pedro alarguna zala esaten da: "*Estaba viudo de D.^a Manuela Arregui, natural de Amasa-Villabona, de esta provincia, en el acto del fallecimiento*". Etzuan au irakurri emazte gajoak. Andik bi urtera il baitzan, eta, senarra bezela, izu-aldi batetik il ere. San Tomasetako bezpera aurreko goizean, etxeak su artu zuan. Itzali zuten, bañan arrezkeroztik ura baldarka-baldarka asi zan, eta artatik il zan, *por insuficiencia mitral* eliz-agiriak dionez; biotzetik beraz, senarra bezela. Eguna, 1907 urteko Azaroaren 29'gna zan, eta 56 urte zituan. (2)

(1) Ernani'ko 9'gn. eriotz-agiria, 167'gn. orria.

(2) Ernani'ko 9'gn. eriotz-liburua, 253'gn. orria.

ERBIAREN BERTSOAK

Ama Birjiña Kontzezioko egun batez, bere terrenoai buelta ematen zijoala, sagasti batean erbia lotan zegoala ikusi zuan.

Etxera etorri, bere pistoizko eskopeta artu ta sagastira joan zan berriro, ixil-ixilik.

Erbia lengo tokian arkitu zuan, lotan oraindik ere. Tira dio, bañan su artu ez... Tximinetaren otsarekin, berriz, erbiak esnatu ta alde egin zuan, tximista bezin azkar, eiztaria esku utsik gelditzen zala.

Andik, naigabea kentzera-edo, sagardotegira joan zan gure bertsolaria. Erbiarekin zer pasa zitzaion lagunai kontatu zien, da auek, gertaera arek bertsoak jartzea merezi zuala, da arren da arren jartzeko asi zitzaizkan.

Baita jarri ta paperetan inprenta-arazi ere. Lenengo txandan, 1.000 paper atera zituan. Ta oiek artuta, Donostira joan zan seme zaarrena, Jose. Paperak, bosna xentimo ematen zituan, baita egun artan bertan, guzi-guziak saldu ere.

Orduan, beste milla paper inprentatu zituan, da Tolosara joan zan saltzera. Baita emen ere guziak saldu.

Zoritxarrez, ordea, bi milla paper oietatik ale bakar bat ere ez da gure eskuetaraño etorri.

Bertsoak, emen jarri degun eran, Tolosa'ko Baleriano Mokoroa zanak eta Pedro Santa Cruz'en semeak, Gregoriok, buruz zekizkiten bezela daude, bien artean saila osatuta, bertso baten erdia izan ezik, irakurleak ikusiko duanez.

Pa-ra bi-ar ni-tu-ke zen-bait ber-tso be-
 rri, A-du-na'n zer pa-sa dan itz e-gi-ñaz gar-
 bi; no-la pe-ga-tu di-dan er-bi ba-tek ne-
 -ri, ja-kin nai di-tu-a-na a-ten-di-tzen ja-rrri.

1/ Para biar nituzke
 zenbait bertso berri,
 Adunan zer pasa dan
 itzegiñez garbi;
 nola peatu didan
 erbi batek neri,
 jakiñ nai dituen
 atenditzen jarri.

2/ Birjiña Kontzeziyo-
ko arratsaldian,
rejistruan nebillen
nere sagastian;
erbi bat ikusi det
sasi-bazterrian,
lo etzanda dagola
patxara ederrian.

3/ Etxera joanda ekarri
nuan eskopeta,
baita ustez erbiyari
ederki apunta;
benakai tira niyon (1)
ta ederki salta,
surikan ez dit artu
pistoia ez lertuta.

4/ Tximenetaren otsa (2)
entzun duanian,
denbora asko ez du
pasa sasi-pian;
beldur enemigon bat
ote zun gañian,
gutxienaz salta da
larogei oñian.

(1) benaka edo penaka = *gatillo*.

(2) tximeneta = *martillo*; eskopeta zaar guziak
zutena.

5/ Lurra jo duanian
ai aren abira!
junturak bigun zeuzkan
itxurak badira;
aldapai gora ekin
diyo ensegira,
etzan luzaro egon
atzera begira.

6/ Sagastian jetxita
laster zan soruan,
golde bat lur pasa du
lenengo saltuan;
gero boteka asi da
a pie-ka juntuan,
“ez natxiok iretzat”
ark bere goguan.

7/ Alako martxarikan
zuanik erbiyak,
sinistuko ez nuen,
orra esan egiyak;
arin zeramazkiyen
anka ta ipurdiyak,
laster ein ditu nere
bistako aldiyak.

8/ Itxoiteko esan nion
bañan etzan jira,
errespuesta eman balu
utsa zan sikira;
ni mogitu baño len
joan zan urrutira,
ez agur ta ez ariyo
egin dit partira.

9/ Erbi ura ez dago
nigana koleran,
sano utzi deralako
oraingo bolaran;
ark esango du: "Pedro,
zer gizon ona dan!",
ain gaizki tratatua
apenas juana dan.

10/ Neri suak utsegiñ
eztu egiñ negarrik,
ondorian atera
bai salto ederrik;
belarriak erne dauzka,
listo anka gorrik,
San Gregorioi ez dauka
promes in biarrik. (3)

(3) San Gregorio, belarrietako miña kentzeko san-

11/
.....
.....
.....
arrapatu ezkeru
balitzake nork jan,
ai zer kazuelakada
ederra dadukan!

12/ Orra amabi bertso
para erbi bati,
iltzia uste nun baña
sano da nigati;
zerri aulak ezkurra
amets oi du beti,
jan nai genduan baña
egin digu *tati!*

tua zan. Bertso au onela bukatzen zuan Mokoroa
jauna zanak:

junturak bigun zeuzkan,
listo anka gorrik,
bolara ontan eztauka
perratu bearrik.

BERTSO BERRIAK

PEDRO SANTA CRUZ'EK JARRIAK

(SAN PEDRO'REN BIZITZA)

San Pedrotan festak izaten dira Andoain'go Kale-Txiki'n. Pedro Santa Cruz kale onen partean jaioa zan, Antzizu baserrian, leen ere esan degunez. Orregatik, San Pedro egun orretan, jaiotetxera joaten zan bazkaltzera, Andoain'go elizan meza nagusia entzunda.

Urte batean, San Pedroren bizitzako sermoi ikaragarri ederra egin zuan apaizak. Pedrok gogoan jaso zituan an entzundako guziak, baita gero bertsoak jarri ere.

Beti bezela, seme zaarrena, Jose ibilli zan paperak saltzen. Bi milla saldu omen zituan.

Ber-tso be-rr-i ba-tzu-bek ni nu-a jar-tze-
-ra, Bir-ji-na so-be-ra-na a-toz
la-gun-tze-ra; san-tu ba-ten bi-zi-tza
nu-a ai-ta-tze-ra en-tzun nai du-nik

ba-da be-torr a-di-tze-ra ze-ru-ko
gil-tzen ja-bi-a nu-a ko-pla-tze
Beste batean onela:
-ra ze-ru-ko

1/ Bertso berri batzuek
ni nua jartzera,
Birjiña Soberana,
atoz laguntzera;
santu baten bizitza
nua aitatzera,
entzun nai dunik bada
betor aditzera,
zeruko giltzen jabia
nua koplazera.

2/ Nere izeneko santu
glorioso Pedro,
zure laguntza eske
nago orduero;
zer bizitza zenduan
munduan igaro,
eziñ esan nitzake
guztiyak ziara,
batzuek irakortzen
egirazu anparo.

3/ Gure Aita San Pedro
Galileatarra,
arrantzale pobrea,
ez Duke Erreala;
Jesus topo egin du
koston datorrela,
eskama bat aña're
txalupan etzuela,
esan ziyon sareak
zabaldu zitzala.

4/ Jesusek aginduta
Pedrok obeditu,
txalupatik sariak
laister bota ditu;
beriala pildutzen
ziraden abitu,
puntaraño betiak,
geigo ezin kabitu;
Pedro milagru orrek
txit zuen arritu.

5/ Pedrok milagro ori
ala ikusita,
fedia jarri zaio
firme isasita;
Jangoikuaren Semia
zala igarrita,
txalupa, arrai, emazte,
ama eta aita,
berai segitu ziyon
guztiyak utzita.

- 6/ Jesusek ikusirik
Pedroren fedia,
denboraz eman zion
bere eskubiria;
predikatzen asi zan
Jaunaren legia,
Zenakuloko atariyan
bildu zan jendia,
bi sermoitan bost milla
gonbertitu dia.
- 7/ Kontu oiek entzunda
liteke arritu,
baten memoriyan eziñ
litezke kabitu;
lenguaje guztitakuak nai
sermoia aditu,
Pedrok batera itzegin,
danak entenditu,
Jaunaren graziyak zuan
ala dirijitu.
- 8/ Zenbait predikadorek
sermoia asten du,
eta atenziyua
askok paratzen du;
belarriyak aldia
artara zuzendu,
bekatariyai: "Zuk au
egingo bazendu!",
gogoz dagonak erraz
entenditutzen du.

- 9/ **Kristoren Bikariyo**
Simon zan aurrena,
Elizaren zimendu
badakit zaudena;
argatikan du Pedro
bigarren izena,
ori da arrantzale
munduan izana,
lenbizi arraien da
gero kristauena.
- 10/ **Munduz mundu zebillen**
Pedro predikatzen,
Jesusentzako anima
asko irabazten;
gure obligaziyuak
zuzen erakusten,
batzuek begi onez
etzuten ekusten,
supritu ezin zutenak
preso sartu zuten.
- 11/ **Fariseuak Pedro**
sartu zuten itxiyan,
an ere egon zan alferrik
denbora gutxiyan;
presionero-saill aundiyak
ura zan tokiyan,
aieri nola itzegiñ
ark bazerekiyan,
denak gonbertiturik
bataiatu zian.

- 12/ Fariseuak ziyoten
ori ekustian:
“Preso eduki degu
gerentzat kaltian;
jendia gonbertitu du
kartzela betian,
iltzia merezi du
gurutze batian”;
sententzi au izan du
Pedrok atzenian.
- 13/ Kartzelatik irten zuten
San Pedro iltzeko,
borreruai esan ziyen
itz au aditzeko:
buruz-bera ta oñaz-gora
gurutzian josteko,
etzala diña Jesus
bezela jartzeko,
mundu guztiyan bistan
ala agertzeko.
- 14/ Borreruak tzit ontzat
ziyoten au artu,
geigo penatuko zala
ziraden kontentu;
pazientziyan pasarik
oinbeste tormentu,
bere anima Jaunari
diyo enkomendatu,
penatik gloriyara
ala zan aldatu.

- 15/ San Pedro Aita Santu
 Erroman lenbiziya,
 fede katolikua
 zabaltzen asiya;
 orain gozaten dago
 grazi ugariya,
 justuairi egiñaz
 ongi etorriya,
 zeruko atian dago
 portero jarriya.
- 16/ San Pedrok justuai
 arrera alaia,
 "Ongi-etorri —esango'io—,
 arreba edo anaya;
 zerura sar zaitez orra
 atia irikiya,
 Jesusek emango'izu
 obra onen sariya,
 silla eder bat or dauka
 zuretzat jarriya."
- 17/ Pedrok nai du guztiyok
 ara juatia,
 gustora irikiko
 liguke atia;
 bidera irten ere bai
 Birjiña maitia,
 ingurua duela
 aingeruz betia...
 ala gerta dedilla,
 orra errematia. (1)

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Alzo'ko Olazabal-berri'ko Inazio Zabala'gandik.

BERTSO BERRIAK
PEDRO SANTAKRUZ'EK
ANDOAINGO DANTZARIARI JARRIAK

1/ Para biar nizkake
zenbait bertso berri
Andoaingo erri
noble leialari,
eta an bizi diran
jende prestuari,
prestatu dutelako
ainbeste dantzari.

2/ Biba Andoaingo
Ayuntamentua,
eta bezindario
firme sonatua;
dantzari-eskuadra
dago formatua,
lengo kostunbria oiek
ez daukate aztua.

3/ Dantzari ederrak ziran
len ere Andañen,
aspaldiko urteetan
ez baita izaten,
sonatuak ziraden
probintzi guztien,
erri askotara aiei
deitzen zitzaien.

4/ Gaztiak asi dira
lenguen legera,
mobimentuak listo
gora eta bera,
saietsetara igual,
aurrera eta atzera,
orien junturetan
ezurrik ote da?

5/ Kabriolak txit zuzen
guztiak batera,
kuatropeluak igual
batetik bestera,
saiatu dira firme
ondo ikastera,
juan gabe ezin egon
oiek ikustera.

- 6/ Leziaturik daude
zortziko danetan,
ezpata-dantza igual
eta makilletan,
zintak lotu-askatu,
arkuak eskuetan,
ikusgarriak daude
tablero gañetan.
- 7/ Amabi mutiko gazte
launaka jarriak,
kapitana amairu,
oraingo berriak,
dantza lenengoetan
ondo ikasiak,
batera bukatzen dituzte
konpasa guztiak.
- 8/ Kabriolak txoill gora,
zer dardarizuak!
saietsetara salto
izugarrizkuak,
atze-aurrera igual,
daude guztizkuak,
oiek dirade mutill
fundamentuzkuak.

- 9/ Dantzari-kasta baita
Andoaingo jendia,
aspaldian atzenduak
sobra egon dia,
esaera zarra da:
"kastatik kondia",
lenguen ordezkua
or azaldu dia.
- 10/ Biba, gazte nobliak,
alegra zaitezte,
askok nai dizute eta
ezin egon triste,
zuen parekorikan
danik ez det uste,
zenbaitxe lekutara
deituzeko zaute.
- 11/ Andoañen dantzariak
kostunbre zarrian
ikusitzen dezute
nola azaldu dian,
beren jantzi ederrakin
tablero gañian,
orixen da ibiltzea
formalidadian.

12/ Ondo portatzen dira
oraindañokuan,
begira oien sona
noraño dijuan;
biba andoaindarrak
beren zortzikuan,
ederki ematen dute
plaza publikuan.

13/ "Ai, oiek dantzariak!"
askok esaten du,
musikak ere txandan
akonpañatzen du;
orrelakorik ez da
lenago izandu,
Saldiasek sistema
onik asmatzen du.

14/ Dantzariak, alkate jauna
bere lagunakin,
osasuna diela
urte askorekin,
Jesusen bendiziua
dutela berekin,
au deseatzan diet
pake onarekin.

15/ Erritar maitiak, milla
onra eta grazia,
festa onak egitea
dute arrazoaia,
ni ere Andoañen naiz
jaio eta azia,
ogei ta zazpi urtean
Anzizun bizia.

16/ Antziñetatik ere
an dago esanik,
ez dala Andoañen
faltako gizonik;
egiztatu derien
errepañña oraindik,
urte oro segitzeko
agintzen diet nik.

IKUSI: Bertso-papera: "Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen Moldiztegian, 1892'-garren urtean". (Joakin Ganborena Zabala, Erren-teri).

(1887)

PELOTA-PARTIDUARENAK

Donostia'ko *Jai-Alai* pelota-plazan, 1887/XI/6'an lenengo bertsoak dionez, pelota-partidua jokatu zuan Billabona'ko *Mankuak*, Pedro Yarza'k, iru prantzesen kontra; beso bakar batek, seiri, bertsoetan esaten danez. Baita irabazi ere.

Eskubiko besoa omen zan palta zuana, txikitan segarekin ebakita.

Pedro Santa Cruz'ek bertsoak atera zituan.

Oi zuan bezela, seme zaarrena, Jose, joan zan Donostia'ra paperak saltzera. Bañan aguzillak debekatu egin zion.

Bestetan, ordea, saldu zituan. Lenengo milla atera ta aitu egin ziran. Urrena, berriz, beste millako bat inprentatu, ta mordoska bat saldu eziñik etxean gelditu zan.

Alare ez degu ale bakar bat ere eskuratu. Amasei bat bertso omen ziran; seme gazteena, Gregorio, ez da bost auetaz baizik oroitzen:

- 1/ Milla ta zortzireun da
larogei ta zazpi,
Azaruaren seian
izango zan noski,
Jai-Alai'n partidua
jokatzen dira asi,
Billabonako Yarza
beste iru prantzesi,
beso batekin seiri
die irabazi.
- 2/ Zuk beso bakarra ta
iru prantzes kontra,
ta aiek aña birian
pelota nork bota?
karrillian pasarik
Jai-Alai'tik jota,
ala ere Pedrori
etzaio inporta,
marka ederra para du
irabazi du ta.
- 3/ Prantziyan diran onenak
Españira eldu,
mankuak kontra eiteko
korajia badu;
iruren kontra bakarrik,
alare ez galdu,
jaun orrek pama aundiya
merezi ez al du?
orrelakorik ez da
oraindik azaldu.

4/ **Barreretan prantzesak
au argumentua:**
“Deabruia ori eztuk
parte onekua;
nundik-nai irteten du
beriala tantua,
maña aunitz baitauka,
eztago tontua,
deabruia orrek baleuka
ori're moztua!”

5/ **Fuerte jokatu dute
prantzes-españolak,
tranpa aundirik gabe
saia egiñalak;
irurak jotzalle aundik,
kasikan igualak,
galdu arren merezi
dituzte jornalak,
danak portatu dira
txit gizon formalak.**

MUTILZARREN BERTSOAK

Bertso auek ere paperetan atera omen ziran, inprentatuta. Bañan paperarik ez degu arkitu iñon ere. Pedro Santa Cruz'en semea-ri kopiatu dizkiogu, buruz zekizkian bezela. Beste bertso bat ere ba omen zan, bañan ezin oroitu izan zan.



Ber-tsu-ak pa-ra-tze-ko ar-tu det or-de
 -na zu da pre-ten-tsi-yu-a mu-til-zar ba-te-
 -na i-ra-kur-tze ko ion-do bi-zi-tza ia-re-
 -na Jau-na zu-re la-gun-tza bi-ar det au-rre-na.

1/ Bertsuak paratzeko
artu det ordena,
au da pretensiyua
mutil zar batena;
irakurtzeko ondo
bizitza arena,
Jauna, zure laguntza
biar det aurrena.

2/ Gaztetan nitzan oso
mutil ugariya,
gorputz delejentia,
kolore gorriya;
zenbaitek izan zuben
nere inbiriya,
amaika damak bota
ziraten begiya.

3/ Sasoiak itxogingo
zubela ustian,
ibazin ibilli nitzan
bat eta bestian;
orain arkitutzen naiz
estadu tristian,
neskatxak ikusi nai
ez naute aldian.

4/ Nere polsan badago
zenbait begi-gorri,
aien pozian ez du
iñork nai etorri;
arrimatzen asitzen
banatzaio iñori,
despreziyua azkar:
“Ortik zikiñ ori!”

5/ Bein batez neskazar bat
pretenditu nuan,
esan ziran: “Zu ta ni
alkarren onduan
oyik ezin berotu
biar dan moduan,
otzak ilko giñuke
datorren neguan!”

6/ Ark ere etsipena,
nik daukan trantzia!
au da estimaziyua
batetan galtzia!
esan dit sasoyian
nagola pasia,
eztala nere zale,
alapekotxia! (1)

(1) alapekotxia = esaera bat, alajaña bezela, orduan asko esaten zana.

7/ Etsiyan egon biarko
det bat ere gabe,
jaiotetxian bada
nere danen jabe;
kuarto batzuk baditut,
aiek eman noble,
anaiak ta koñatak
artuko al naue!

8/ Satispaziyoz bildu
nitzan aietara,
orain probatutzen det
bost aieketara; (2)
oiekin bizitzerik
eztago naiera,
bost aldiz juaten naiz
zaputzez oiera.

9/ Zaputzez oira juanda
mutil zar tristiak
asarretxo daduzka
tripako estiak;
lorikan ezin egin
nagola gosiak,
ta gañera baditut
persegidoriak.

(2) aieka = alde, alderdi.

10/ Zikiñak iya jan nau,
azienda ugaritu,
garbitzallerik iñon
ezin det arkitu;
denboraz balitzake
oik zeñek garbitu,
bakoitzak eun errial
baliyo balitu.

11/ Illoba bat badegu,
alaba bakarra,
lotsagabia oso,
gaiztua ta azkarra;
aren dotriña neri
burla eta parra,
judiyuetan ere
obegorik bada.

12/ Gabian esertzen naiz
etxian sartuta,
gure illoba trastia
ez luak artuta;
kokotzian bizarra
dauka luzatuta,
atzera botatzen nau
andikan elduta.

13/ Orduantxen artzen det
bastante kolera,
jipatzeko asmuan
abitzen naiz bera;
zer belaun gozo dedan
ortan siñale da:
bereala erortzen naiz
muturrez aurrera.

14/ Silla ta guzi oi nau
ankaz gora bota,
apariyaren orde
balenziano buelta;
ezer esaten badet
aba zabaldua,
illatiya sartzen dit
eskuba sartuta.

15/
.....
.....
.....
ezer esaten badet
kontra anaia bera,
koñeta erriyetan
datorkit aurrera.

(1891)

ETXE-ALDAKETA EDO BERTSO BATZUEN ONDORENA

Leen ere esan degun bezela, Pedro Santa Cruz Aduna'n bizi zan, Pagake edo Paake deritzaion baserrian.

Maizterra zan, ta nausiak zituan Aduna bertako Etxeberri baserriko iru anai mutilzar.

Ta mutilzarren bertsoekin izugarri asarretu zitzaizkan, berentzat jarriak ziralakoan.

Pedrok ezetz eta ezetz, bertsoetan illoba bat agertzen zala ta berak illobarik etzutela ta abar esan oi zien, bañan etziran konformatu.

Mengantzaz, Pedrok ibiltzen zituan lurretan sagastia jarri ta orrela asi zitzaizkan; despatxatu ez alegia, bai ordea al zuten enbarazu guzia egin...

Ala, modu artan an bizitzerik etzegoala

etsirik, beste baserri baten billa asi zan; da Alkatxuin deritzaiona arkitu zuan.

Alkatxuin baserri au, Ernani'ko partean dago, Naparroa aldera, Ereñozu'ko ballaran, emendik ogei bat minutura malda batean, goi xamar.

Aldaketa egiten ari zan egunean, —San Martiñak alde ortan ain zuzen—, Fagollaga'ko tabernan Goizueta'ko Xardia bertsolaria egotea suertatu zan.

Xardia onek erdiko iru beatzak falta zitan, beatz txikia ta lodia ez beste guziak, ta orregatik esaten zioten Xardia, aren eskuak sardea zidurialako.

Ala, Xardiak, tabernatik Pedro gurdiarekin ikustean, onela kantatu zion:

A-dix-ki-di-a An-do-ain-di-kan za-
 -toz I-nā-zu al-de-ra, E-nik ja-kin-
 -du de-da-nez nos-ki Al-ka-txu-rin-
 -go la-rre-ra; e-gu-nen-ba-tez goa-

-tu-ko ze-ra noiz e-gin de-zun sa-rre-ra

bi-zi-mou o-na pa-sa-tu-tze-ko

e-tza-toz le-ku txar-re-ra

beste batzutan onela:

Al-ka-txu-rin-go la-rre-ra

goa-tu-ko ze-ra noiz e-gin de-zun sa-rre-ra

e-tza-toz le-ku txar-re-ra

Adixkidia, Andoaindikan
zatoz Eñazu aldera,
nik aditu dedanez noski
Alkatxuingo larrera;
egunen batez goatuko zera
noiz egin dezun sarrera,
bizi-mou ona pasatutzeko
etzatoz leku txarrera!

Ta Pedrok onela erantzun zion:

Adixkidia, tabernatikan
egin dirazu ijua,
nunbait etzazu zuri gustatzen
orain nijuan lekua;
ontzai egatzeko gustatzen zaio
beti paraje altua,
lenago ere ez nazu beti
erriberan usatua.

Dakigunez, Pedro andoaindarra zan jaiotzez, eta andoaindarrai *ontza* esaten zaie izengoitiz. Orregatik aitatzen ditu emen egazti auek.

Xardiak beste bat ere kantatu omen zion, bañan Pedrok, kasorik egin gabe, aurrera segitu zuan, kanturako umorerik ez baitzuan izango...

Arrezkeroztik etzuan geiago bertsorik jarri ta saldu, andik bost urtera Ereñozu'ko Mixioarenak izan ezik:

ERNANIKO ERIÑAZUKO MISIO SANTUA-
REN ORIPENGARRIAK (1)

Mi-lla ta zor-tzi-reun-da la-ro-gei taa-
-ma-sei, na-xi-o san-tu on bat jar-tzi-
-a daa-rra-zoi; U-ru-mi-an ba-da-go so
-bra zen-bait pu-zoi, bo-ti-ka pres-ta-tze-
-ra da-duz-ka-gun gai-tzai don Blas Pra-de-
-re el-du da gu-rea-ni-men ar-tzai
onela ere bai:
gu-rea-ni-men (1)

(1) Ereñozu'koa, Urumea ibai-sakonaren eliza da, ia Emani'tik asi ta Naparroa'ko mugaraño. Eliza ori nola egiña dan, Txirrita'ren liburuan ikus dezake irakurleak: Auspoa, 18-19'gn. zenb.

1/ Milla ta zortzireun
larogei ta amasci,
misio santu on bat
jartzia da arrazoi;
Urumian badago
sobra zenbait puzoi,
botika prestatzera
daduzkagun gaitzai
Aita Pradere eldu da
gure animen artzai.

2/ Aita San Antoniyo
da gure Patroya, (2)
bera misionero
lenago ibilliya;
presentatu zaio orañ
lagun bat berriya,
zabaldu nairik gugan
grazi ugariya;
ongi etorri dala,
hazegoan premiya.

3/ Predikatzen asi da
nola dan fedia,
ukatutzen dutenak
naikoa badia;
erdi zorua baita
alako jendia,
aditu dutenian
nundik dan bidia,
burua makurtuta
ixill egon dia.

(2) Ereñozu'ko eliza, San Antonio'ren izenean dago.

- 4/ Zer moduz iristen dan
bekatuan gaitza,
Aita Don Blas Pradere
ederki da mintza;
gaur bada biyarko ez da
munduko bizitza,
beti emengoak bagiña
bezela gabiltza,
utsak engañatuta
eruaren gisa.
- 5/ Etzaio egin biar
fediari burla,
gauza au konprenditutzen
txit dago samurra;
eternidade luzia,
bizitza laburra,
segitzen bada aurrera
bekatuan orrela,
laister da infernuan
anima illezkorra.
- 6/ Egizak esaten ai da
misiyo guria,
aditu diyogu gogoz
bere lenguaia;
lenian segitzea
al degu obia?
pekatuaren mantxa da
neurrik gabia,
ark illerazo zuan
guztiyon Jabia.

7/ Nere kristauak, pensatu
nork bere klasian
oituran izan bada
denbora luzian:
pekatu mortala egin
degun bakoitzian,
atormentatu degu
Jesus gurutzian;
nori biyotza ez lertu
ori aditzian?

8/ Mantxa gabe ez gaude
persona klaserik,
eta garbitu ondo
badegu lotsarik:
gaiztuen esanari
ez egin kasorik,
gaitzerako bidian
añ gutxi pausorik,
Jesusi enkomendatu
anima osorik.

9/ Blasfematzen askotxok
degu emen ikasi,
gauzarik zikiñenak
eskeñtzen Jesusi;
zer kastigu dakarren
nai det adierazi,
euskaldunen izena
zakuia berezi, (sic)
lengo lege ederra
juan zaigu igesi.

- 10/ Kostumbrea euskaldun
askok daukaguna,
gaizkiyago mintzatu eziñ
balitz erdalduna;
lengo legea dago
emendikan juana,
asarretu dalako
gure Jesus ona,
kastigu au argatik
bota du gugana.
- 11/ Blasfematzia utzita
egin oraziyua,
zertako da entenditzen ez dan
gonbersaziyua?
Mariya Santisimari
izan deboziyua,
au da gure aurreko
zarren leziyua,
ortara benzituko da
gure biziya.
- 12/ Gaiztua ontzen ezpada
beretzat du kalte,
kastigatuko da ura
infernuban fuerte;
bekatuban daudenak
ez gabilta aparte,
laister ezpadegu nai
etsaiakin parte,
orañ kontubak atera
denbora dan arte.

13/ Martiriyo aundikua da
infernuko labia,
emen borra dezagun
arako bidia;
konsideratu zer dan
eternidadia,
milloika urtiak juan arren
siñale gabia,
pensamentu onek santu
egiñak badia.

14/ Aita Don Blasen esanak,
kristaubak, ez aztu,
erakutsi digu ondo
nola preparatu;
esamiña kontuz egiñ,
doloria formatu,
proposituan firme
zuzen konfesatu,
satisfaziyo osuan
gero Jauna artu.

15/ Asarre edo gorrotorik
izan bazaio iñori,
amore eman biyotzez
bata bestiari;
ta aldegiñ Satanasen
sare gaiztuari,
miserikordiyazko
guztiyen Jaun orri,
pronto dago ofensak
barkatzeko guri.

- 16/ Aita Don Blasek Jesusen
 legea badaki,
 Ereñozuko elizan
 mintzatu da ederki;
 lengo oituren kontra
 para gaitu egoki,
 Jaunaren graziya zaio
 mingañetik jalki,
 gero're orren esanak
 goguan eduki.
- 17/ Etorri da garizuma
 sartu ta bereala,
 bazekiyan seguru
 premiyan geundela;
 eziñ ordañ gentzake
 guk orri iñola,
 Jainkuak osasuna
 munduban diyola,
 ta gero gloriyarekiñ
 pagatu dezala.
- 18/ Nere kristau maitiak,
 biyotzak zuzendu,
 maisu txarra ez da
 gugana izandu;
 obra onak bear ditugu
 beti almazendu,
 jaun orren konsejuak
 ez geigo atzendu,
 Pedro Santa Cruz'ek au
 desiatutzen du. (3)

(3) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostia'n.

DESPEDIRA


Akola baserriko seme bat, Gregorio, Ameriketara joan zan soldaduskaren igesi, desertore alegia. Olako asko izaten zan garai artu. Alde batetik, egon bearra iru urtekoa zan, ta, bestetik, Cuba'ko ta Afrikako gerrak orduan izan ziran. Lenengo, Prantziara joaten ziran, mendiz edo itxasoz. Mutil-pasatzalleak ere baziran. Gregorio ori, Epele'ko beste lagun batekin joan zan.

Auzokoa eta laguna baitzuan, Pedro Santa Cruz'ek Epele'raño lagundu zion. Gero karta bat egin zion bertotan emendik Ameriketara, orduko despedira gogora-aaziaz Sei bat bertso omen ziran, bañan bakar bat besterik ez du orain gogoan Pedroren seme Gregoriok:


A - gur ba - na e - gi - ñaz al - ka - rri be - gi
 - ra, E - pe - le - ko lan - gan zan gu - re des - pe - di -
 - ra; be - gi - ti - kan mal - ku - a, es - ku - ti - kan ti -




-ra, juan bi-ar zen-du-be-la io-sou-rru-ti-



-ra... bost al-diz o-roit-zen zait or-du-ko par-ti-



-ra.



bost al-diz o-roit-zen zait

Agur bana egiñaz
alkarri begira,
Epeleko langan zan
gure despedira;
begitikan malkua,
eskuairi tira,
juan biar zendubela
oso urrutira...
bost aldiz oroitzen zait
orduko partira.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *A. Zavala, S.J.*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTA-
REN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK
JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI
ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO
ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZA-
LA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA
BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KG LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BER-
TSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta
beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala, S.J.*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BER-
TSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala S.J.*: JUAN ETA PELLO ZABALE-
TA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala, S.J.*: IRU BERTSOLARI.



IMPRESO EN ESPAÑA